

2023KO MAITZAREN 18AN UDALBATZA OSOAK EGINDAKO OHIKO BATZARRALDIAREN AKTA.

LEKUA: Beasaingo Udaletxea.

ARETOA: Batzar Aretoa.

EGUNA: Hemezortzia.

HILABETEA: Maiatza.

URTEA: Bi mila eta hogeita hiru.

HASIERAKO ORDUA: Arratsaldeko zazpiak

BATZARRALDIAREN IZAERA: Ohikoa.

DEIALDIA: Lehena.

OSATZEN DUTEN PARTAIDEEN KOPURUA: Hamazazpi (17)

UDALBURUA: LEIRE ARTOLA UGALDE

BILDUAK:

EAJ-PNV

- LEIRE ARTOLA UGALDE
- ADUR UGARTEMENDIA LEUNDA
- MARIA LUISA VALLÉS FERNÁNDEZ
- FRANCISCO JAVIER MATARRANZ RICO
- MARIA ELENA RUIZ ZABALA
- EDORTA DIAZ DEL RIO
- JON OLANO ARRESE
- AMETS ARROSPIDE ZUBELDIA
- AINARA AYESTARAN ALDASORO
- MIKEL PLAZAOLA OYARZABAL

Beasaingo EH Bildu

- NEREA MANZISIDOR MENDIZABAL
- HASIER AGIRRE ELKOROBerezibar
- YOLANDA HERNANDEZ RODRIGUEZ

- JOSEBA MIKEL OLANO GUEMBE

- AITOR URDANGARIN IRASTORZA

Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak

- EVA ALVAREZ ATANES

- ANGEL REDONDO FERNANDEZ

ETORRI GABEA:

IDAZKARIA: Itziar Aroztegui Apaolaza

Bileran ere parte hartu du Lurdes Alegria Lasa kontuhartzaileak.

Bapateko itzulpen lanetan Lurdes Auzmendi Aierbe ibili da “Traductores e intérpretes” S.A.ren enpresakoa.

1.- AURREKO AKTAK. 2023-04-04 eta 2023-05-02ko akten onespena.

Aipatutako akten berri eman ondoren, aho batez onartu dira beraiekiko zer esanik ez dagoelako.

2.- ANTOLAKUNTZA BATZORDEKO PROPOSAMENAK:

a.- 2022KO KONTU OROKORRA. 2022KO KONTUAK. 2023RAKO FINANTZA KONTROLEKO PLANA. 2022KO BARNE KONTROLARI BURUZKO URTEKO LABURPEN TXOSTENA. 2023LIPR0001

Alkatea andreak (EAJ-PNV) ondorengo proposamenaren berri eman du:

“AURREKARIAK

1.- 2023ko martxoaren 29an Antolakuntza Batzordea Kontuatarako Batzorde Berezi gisa osaturik egindako bileran, Kontuhartzaileak ondorengoaren berri eman zuen:

- 2022ko ekitaldiari dagokion Aurrekontu Orokorraren Kontua osatu dela, ondorengo dokumentuez osatuta: Aurrekontuaren likidazioa, Egoera Balantzea, Ondarearen emaitza ekonomikoaren Kontua, Diruzaintzako gerakina eta indarrean dagoen legeriak eskatutako gainerako Eranskinak, Udalarai dagozkienak:

2.- Aipatutako kontuei buruzko jendaurreko iragarkia 2023ko apirilaren 4an argitaratu zen G.A.O.ean, eta 15 lanegun egon behar zuen jendaurrean.

Aipatutako epea igaro denez, inolako erreklamazio edo oharrik jaso gabe:

- *Udalbatzaren onespenerako jartzen da Udalaren kontuekin osatutako 2.022 ekitaldiko Kontu Orokorra.*

- *2023 ekitaldirako urteko finantza kontroleko planaren eta 2022 ekitaldiari dagokion Barne kontrolari buruzko urteko laburpen txostenaren berri ematen dio Kontuhartzaileak Udalbatzari.”*

Jarraian Alkate andreak (EAJ-PNV) ondorengo esan du: Kontu orokorraren laburpen gisa esan, 2022ko hasierako aurrekontua 18.375.000 € izan zela eta sarreretan Aldundiaren berrikuspena 10 milioi ingurukoa bazen ere, azkenean likidatu zena izan zen 10.918.018 €. Horri kreditu aldaketak erantsi zitzaizkion. 2021etik txertatutako hiru milioi zazpiehun erurokoak eta bestetik kreditu berriak eta osagarriak izan zirenak, lau milioi hirurehun eta berrogeita hemezortzi. Azkenik behin betiko aurrekontua, 26.443.000 €takoa izan zen.

Gastuen gauzatze mailari dagokionez, %72,38ko gauzatze maila izan da eta diru zaintzako gerakina, 19.500.000 €takoa. Bankuetan saldoa, horren adierazle, 20.500.000 €takoa. Udalak ez du zor bizirik, beraz maileguaren zor bizia 0 €takoa izan zen.

2022an egindako gastu aipagarrien artean:

- Beasain Lantzen desegitearen ondorioz Udalak jasotako ondasunak: kiroldegia, Loinaz futbol zelaia, etxebizitzak, osasun zentroko garajeak, Joan XXIIIko lokalak, Ittolako pabiloia eta lursailak.

2022ko inbertsio esanguratsuenak:

- Oriamendi eta Erauskin plazako urbanizazio lanak. Balioa: 603.000 €
- Urbi Berri erretiratuen etxea. Balioa: 690.000 €
- Plaka fotovoltaikoak kiroldegian. Balioa : 330.000 €
- Igartza futbol zelaiko belar aldaketa. Balioa: ia 500.000 €
- Nafarroa Etorbidea eta Oriamendi kaleak lotzen dituen igogailua. Balioa: 330.000 €

Egonkortasun legea betetzearen inguruan esan, 2022an ez zegoela arau-fiskalen betebeharra etenda zegoelako, baina emaitzak ondorengoak izango lirateke:

- Superabit: 1.691.000 €
- Finantzen iraunkortasun edo zor publikoa, GOIEKlren maileguak suposatzen diguna: %2,30

Jendaurrean egon den epean ez da inolako erreklamaziorik jaso eta horren ondorioz Beasaingo Udalaren 2022ko Kontu Orokorra eta 2023. urterako finantza kontroleko plana Udalbatzak onartzea proposatzen da eta 2022ari dagokion barne kontrolari dagokion laburpen txostena berri ematen dion kontuhartzaileak Udalbatzari.

Hitz egiteko txanda eman ondoren, iritzi hauek azaldu dira:

Eva Alvarez Atanes andreak (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak): “Ya el año pasado aprovechamos este punto para criticar el procedimiento de las modificaciones de crédito. Tal y como se ha dicho un presupuesto que era aproximadamente de 18 millones de euros, ha finalizado siendo de 26 millones. Nuevamente manifestamos nuestra queja por el procedimiento que se sigue. Esperemos que en la siguiente legislatura el proceder cambie, que el presupuesto que se presente sea más claro y ajustado a la realidad. Entendemos que hay gastos que hay que asumir y de ahí que muchas de las modificaciones de créditos no

hayamos votado en contra, pero no estamos a favor del procedimiento. Finalmente decir que el tener un superávit como el que tenemos debería llevar consigo una revisión de las inversiones que se realizan.”

Hasier Agirre Elkoroberezibar jaunak (Beasaingo EH Bildu): “Urtero aipatzen dugu Aurrekontu Orokorra dela egiten den kudeaketa ekonomikoaren argazkia. Atentzioa jartzen dugu superabitean eta baita ere kreditu-gehikuntzetan. Gerakinaren kopuruak ere zer pentsa ematen digu. Iruditzen zaigu enpresa pribatu baten zenbakiak izan daitezkeela baina ez, administrazio publiko baten zenbakiak. Kreditu gehitzea egoera puntual batzuei erantzuteko formula da eta hemen, aldiz, ohiko prozedura da. Kontu Orokorra pasa dena onartzea da eta zentzu horretan onartu egingo dugu baina kritika egiteko aprobetxatzen dugu.”

Alkate andreak (EAJ-PNV): “Guk horrelako gerakinaren aurrean egiten dugun irakurketa da, urteetako kudeaketa zuhurraren ondorioa dela, hainbat administrazioetan nahiko luketena. Honek bide ematen digu tokatzen denean eta inbertsio potenteak egin behar ditugunean, gerakin horretatik tiratzea eta inbertsioak gauzatzea. Bestela ezinezkoa izango litzateke. Guk ere etxean horrela jokatzten dugu. Daukagunean gorde egiten dugu aparteko gastua tokatzen denerako. Kreditu aldaketak egiten ditugu eta ikusi dugun bezala %50a 2022an egindako txertaketak dira Urteko aurrekontuarekin, urtean bertan proiektuak gauzatu eta egitea askotan ezinezkoa izaten da. Txertaketa horiek askotan erantzuten die, proiektua hasi eta lizitatu eta exekuzioan egon. Kreditu aldaketak legeak ahalbidetzen ditu et egiten baditugu da gerakina dugulako eta balio du urtez-urte aurrekontuetan aurreikusten inbertsioak aurrera eramateko. Aurrekontuan, sarrerak eta irteerak kuadratu behar dute. FOFINaren menpe ere egoten gara eta askotan gu aurrekontuetan kontusaila jartzen dugunean, intentzio bat islatu nahi dugu proiektua aurrera eramateko. Proiektua egin eta gauzatu daitekeenean kreditu aldaketa egiten dugu.”

Hasier Agirre Elkoroberezibar jaunak (Beasaingo EH Bildu): “Kudeaketa zuhurra izan daiteke, baina kudeaketa xuhurra ere izan daiteke Beasaingo herritarrentzat. Askotan entzun dugu dirua beti ez dagoela, baina dirua badago eta urtero goraka doan zenbakia da. Gure ustez Beasainen badaude beharrak diru horrekin erantzuna emateko modukoak.”

Alkate andreak (EAJ-PNV): “Xuhurra ez baizik eta zuhurra da. Lehentasunak jartzen dira eta herrian beharrak aintzakotzat hartzen dira eta dagokion irakurketa egiten da. Zentzu horretan lehentasunak jartzen dira eta horien arabera jokatzeta tokatzen zaigu.”

Gaia behar adina eztabaidatu ondoren, aho batez onartu da proposamena.

b.- KREDITU ALDAKETA. 4. KREDITU GEHIGARRIEN ESPEDIENTEA ETA DIRULAGUNTZEN ERANSKINAREN ALDAKETA. 2023CRAD0004

Alkate andreak (EAJ-PNV), proposamenaren berri eman du:

“Honekin batera doan proposamenean zerrendatutako gastua egin beharra izanik eta hau finantzatzeko aurrekontu krediturik ez dagoela kontutan hartuz, Alkatetza honek Udalbatzari ondorengo Akordio Proposamena egiten dio:

1.- 16. Kreditu gehikuntzen bidez 689.574,06 euroko zenbatekoaz eta eranskinean zehazten den moduan finantzatzen den kreditu aldaketa hasiera batean onartzea, eta kapituluka honela laburtzen dena:

GASTUEN GEHIKUNTZA

<i>Kap.</i>	<i>Izena</i>	<i>Euro</i>
2	<i>Ondasun arrunt eta zerbitzuen erosketak</i>	53.650,00
4	<i>Transferentzia arruntak</i>	81.075,00
6	<i>Inbertsio errealak</i>	514.849,06
8	<i>Finantza aktiboak</i>	40.000,00
<i>GASTUEN GEHIKUNTZA / INCREMENTO GASTO</i>		689.574,06

SARRERAK

<i>Kap.</i>	<i>Izena</i>	<i>Euro</i>
8	<i>Finantza aktiboak</i>	689.574,06
<i>FINANTZIAZIOA</i>		689.574,06

2.- *Dirulaguntzen eranskinaren aldaketa hasiera batean onartzea, bertan espediente honen helburu ondorengo partidak txertatuz: 0241.481.323.40.01 La Salle San José ikastetxea 2022 gastuak eta 0241.481.323.50.03 Andramendi ikastola 2022 gastuak.*

3.- *Aipatutako akordioa jendaurrean jartzea, 15 eguneko epean bidezkoak diren alegazioak aurkeztu ahal izateko. Alegaziorik jasoko ez balitz, behin-betirako onartutzat emango da."*

KREDITU GEHIGARRIAK FINANTZATZEKO PROPOSAMENA

<i>Sarreraren kontzeptuak/ Gastuen baja</i>	<i>Baliabidearen kontzeptua</i>	<i>Sarrera handiagoak</i>
870.01	<i>Gastu orokorretarako diruzaintzako gerakina / Remanente de tesorería para gastos generales</i>	689.574,06
<i>GASTUEN GEHIKUNTZAK GUZTIRA</i>		689.574,06

Hitz egiteko txanda eman ondoren, iritzi hauek azaldu dira:

Eva Alvarez Atanes andreak (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak): "Es repetir lo ya dicho. Nos vamos a abstener, no sólo por el procedimiento, sino porque se recogen las subvenciones para los colegios La Salle-San Jose y Andramendi y aunque no estamos en contra del objeto para el que se otorgan las mismas, no nos parece que deban ser nominativas."

Alkate andreak (EAJ-PNV): "Kreditu aldaketa hauen zenbatekoaren portzentaje handi bat bi inbertsio egiteko da: kiroldegiko erabilera anitzeko egokitzapena eta Loinatz futbol zelaian efizientzia energetikoruntz transizioa egiteko plaka fotovoltaiakoak jartzeko.

Hau dugu adibide. Guk aurrekontua onartu genuenean partida batzuk onartu genituen, baina orain lehentasuna ematen zaio eta urte honetan zehar proiektu hauek aurrera eramateko bide emango diogu."

Eva Alvarez Atanes andreak (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak): "Por esa razón no votamos en contra de ellas."

Gaia behar adina eztabaidatu ondoren, bozketa egin da eta ondorengo emaitza lortu da:

Aldeko botoak: 15 (EAJ-PNV, Beasaingo EH Bildu)

Aurkako botoak: 0

Abstentzioak: 2 (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak)

Horren ondorioz, proposamena gehiengo osoarekin onartu da.

c.- HIRILURREN BALIO GEHIKUNTZAREN GAINEKO ZERGA. SORTZAPENAREN UNEAN LURRAREN BALIOARI, GEHIKUNTZA SORTZEN DEN ALDIAREN ARABERA APLIKATU BEHARREKO KOEFIZIENTEAK ALDATZEA. 2023APTF0002

Alkate andreak (EAJ-PNV), Antolakuntza batzordeko proposamenaren berri eman du:

Beasaingo Udalak, 1989ko Urriaren 25ean onartutako Ordenantza fiskalaren bidez, hirilurren balio gehikuntzaren gaineko Zerga ezarria du.

Gipuzkoako Foru Aldundiak azaroaren 16ko 7/2021 Foru Dekretu Araua onartu du, Hiri Lurren Balio Gehikuntzaren gaineko Zergari buruzko uztailaren 5eko 16/1989 Foru Araua egokitzen duena, Auzitegi Konstituzionalaren jurisprudentziara egokitzeko.

7/2021 Foru Dekretu horrek 16/1989 Foru Arauaren 4. artikuluan ezarritakoaren arabera, sortzapenaren unean lurraren balioari aplikatu beharreko gehieneko koefiziente berriak ezarri ziren, eta adierazi zuen koefiziente horiek urtero eguneratuko zirela Foru Arau bidez.

Udalbatzak, 2022ko martxoaren 3an egindako bilkuran, Hiri Lurren Balio Gehikuntzaren gaineko Zerga arautzen duen Ordenantza Fiskala eta haren Eranskina aldatzea onartu zuen, eta aplikatu beharreko koefiziente berriak ezarri zituen, horretarako 7/2021 Foru Dekretuan adierazitako gehieneko koefizienteak hartuta.

Ondoren, 6/2022 Foru Arauaren laugarren xedapen gehigarriak aldatu ditu sortzapenaren unean lurzoruaren balioari aplika dakizkiokeen gehieneko koefizienteak, 2023ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin.

Antolakuntza Batzordeak 2023ko maiatzaren 11n egindako bileran Udalbatzari ondorengo akordio proposamena egitea erabaki du:

PROPOSAMENA

Hirilurren Balio Gehikuntzaren gaineko Zerga:

Sortzapenaren unean lurraren balioari, gehikuntza sortzen den aldiaren arabera aplikatu beharreko koefizienteak aldatzea. Koefiziente horiek zerga hori arautzen duen ordenantza fiskalaren eranskinean daude jasota, eta honela geratuko dira:

<i>ERANSKINA /ANEXO</i>		
<i>Sorreraldia</i>	<i>Koefizientea /Coeficiente</i>	<i>Período de Generación</i>
<i>Urtebetetik behera</i>	<i>0,15</i>	<i>Inferior a 1 año</i>
<i>Urte bat</i>	<i>0,15</i>	<i>1 año</i>
<i>2 urte</i>	<i>0,14</i>	<i>2 años</i>
<i>3 urte</i>	<i>0,15</i>	<i>3 años</i>
<i>4 urte</i>	<i>0,17</i>	<i>4 años</i>
<i>5 urte</i>	<i>0,18</i>	<i>5 años</i>
<i>6 urte</i>	<i>0,19</i>	<i>6 años</i>
<i>7 urte</i>	<i>0,18</i>	<i>7 años</i>
<i>8 urte</i>	<i>0,15</i>	<i>8 años</i>
<i>9 urte</i>	<i>0,12</i>	<i>9 años</i>
<i>10 urte</i>	<i>0,10</i>	<i>10 años</i>
<i>11 urte</i>	<i>0,09</i>	<i>11 años</i>
<i>12 urte</i>	<i>0,09</i>	<i>12 años</i>
<i>13 urte</i>	<i>0,09</i>	<i>13 años</i>
<i>14 urte</i>	<i>0,09</i>	<i>14 años</i>
<i>15 urte</i>	<i>0,10</i>	<i>15 años</i>
<i>16 urte</i>	<i>0,13</i>	<i>16 años</i>
<i>17 urte</i>	<i>0,17</i>	<i>17 años</i>
<i>18 urte</i>	<i>0,23</i>	<i>18 años</i>
<i>19 urte</i>	<i>0,29</i>	<i>19 años</i>
<i>20 urte edo gehiago</i>	<i>0,45</i>	<i>Igual o superior a 20 años</i>
<i>ZERGA TIPOA</i>		<i>TIPO DE GRAVAMEN</i>
<i>Zerga tipoa</i>	<i>7,20%</i>	<i>Tipo de Gravamen</i>

Bigarren.- Hartutako erabakia G.A.O.ean, udal iragarkien taulan eta Lurralde Historikoko zabalkuntza handieneko egunkari batean argitaratuko da, jendaurrean egongo delarik 30 laneguneko epean, erreklamazioak aurkeztu ahal izateko.

Epe hori igarota erreklamaziorik aurkezten ez bada, erabakia behin betiko onartutzat joko da, eta testu osoa G.A.O.ean argitaratuko da, onespén-erabakia argitaratu eta hurrengo egunean indarrean sartzeko.

Epe horretan erreklamazioak aurkeztutko balira Udalbatzak ebatzi beharko lituzke.”

Gaia behar adina eztabaidatu ondoren, aho batez onartu da proposamena.

d.- BEASAINGO UDALEKO LANGILE PUBLIKO IZATEKO HAUTAPEN PROZESUETAN BITARTEKO ELEKTRIKOEN BIDEZ HARREMANAK IZATEKO BETEBEHARRA ARAUTZEN DUEN UDAL ORDENANTZA. HASIERAKO ONESPENA. 2023PEBO0024

Alkate andreak Antolakuntza batzordearen proposamenaren berri eman du:

AURREKARIAK

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 133. artikuluan ezarritakoaren arabera, 2023ko martxoaren 16tik 2023ko martxoaren 30era bitartean, kontsulta publiko bat egin da udal hori arautzen duen ordenantza-proiektua egin aurretik, herritarrek arauak egiteko prozeduran duten parte-hartzea hobetzeko.

Denbora-tarte horretan, ez da herritarren ekarpenik jasotzen.

OINARRI JURIDIKOAK

- 7/1985 Legea, apirilaren 2koa, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituenak: 4.1, 20.1 c), 47.1, 49 eta 52.2.

- Toki Erakundearen Antolaketa, Jarduera eta Araubide Juridikoaren Erregelamendua, azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuaren bidez onartua: 82.2, 123. eta 126. artikulua.

- 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena: 80,82, 83, 129 eta 133. artikulua.

Antolaketa Batzordeak proposatuta, Udalaren Osoko Bilkurak honako erabaki hau hartu du:

Lehenengoa.- Beasaingo Udaleko enplegatu publiko izateko hautaketa-prozesuetan harremanak bitarteko elektronikoz izateko betebeharra arautzen duen udal-ordenantza hasieran onartzea.

Bigarrena.- Jendaurrean jarriko da 30 egun balioduneko epean, GAO-n argitaratutako iragarki baten bidez, eta bertan adieraziko da epe horretan alegaziorik edo erreklamaziorik aurkezten ez bada, behin betiko onartuko dela Beasaingo Udaleko enplegatu publiko izateko hautaketa-prozesuetan bitarteko elektronikoen bidez harremanak izateko betebeharra arautzen duen udal-ordenantza.”

Bozketa eginda, aho batez hasierako onespén eman zaio ondorengo Ordenantzari:

Udal ordenantza, Beasaingo udaleko langile publiko izateko hautapen prozesuetan bitarteko elektronikoen bidez harremanak izateko betebeharra arautzen duena.

Baliabide elektronikoak erabiltzea tresna eraginkorra da hautaketa-prozesuak kudeatzeko; izan ere, izangaiei eskaintzen zaion zerbitzua hobetu egiten da, izapide presentzialak eta joan-etorriak

saihestuz, eta, aldi berean, azkartasun handiagoa ematen die, izapideen arteko denborak nabarmen murrizten baititu eta, hartara, administrazio eraginkorragoa lortzen laguntzen baitu.

Horregatik, komenigarritzat jotzen da Beasaingo Udalak deitutako hautapen prozesuetan interesa duten pertsonak bitarteko elektronikoen bidez soilik erlazionatzea, eta hori gero eta ohikoagoa da.

Udaleko enplegatu publiko izateko hautaketa-prozesu guztiak kudeatzeko, beharrezkoa eta egokia da prozesu horietan bitarteko elektronikoen bidez harremanak izateko betebeharra arautzea.

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 14. artikulua eta martxoaren 30eko 203/2021 Errege Dekretuaren, sektore publikoaren bitarteko elektronikoen bidezko jarduketa- eta funtzionamendu-erregelamendua onartzen duenaren 3.3 artikulua ezartzen dute administrazio publikoek udal araez ezarri ahal izango dutela administrazioekin harremanak izateko betebeharra, baliabide elektronikoak soilik erabiliz, baldin eta pertsona juridikoak edo pertsona fisikoak taldeak badira, gaitasun ekonomiko edo teknikoak, dedikazio profesionala edo beste arrazoi batzuk direla medio, behar diren baliabide teknologikoak eskura dituztela egiaztatzen bada.

Horretarako, eta toki-araubidearen oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legeko 4.1 artikuluko a) letran eta 25.2 artikuluko ñ) idatz-zatian eta Euskal Autonomia Erkidegoko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legeko 17.1.30) artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik, honako ordenantza honen onarpena izapidatzen da, A1, A2, B eta C1 klasifikazioko talde eta azpitaldeetan sartzeko hautaketa-prozesuetan bitarteko elektronikoen bidez erlazionatzeko betebeharra ezartzen duena, izan ere, horiek eskuratzeko eskatzen den titulazioa kontuan hartuta, esan daiteke baliabide elektronikoak erabiltzeko gaitasun tekniko nahikoa dutela, baliabide horiek pixkanaka ezartzeak aukera eman baitu baliabide horiek modu orokorrean erabiltzeko, bai bizitza akademikoan, bai gainerako eremu pertsonaletan. Horrela, baliabide horiek eskuratu eta eskuragarri daudela egiaztatzen da.

1. artikulua. Bitarteko elektronikoen bidez harremanak izatera behartuta dauden pertsonak.

1. Beasaingo Udalak deitzen dituen A1, A2, B eta C1 klasifikazioko talde eta azpitaldeetan sartzeko hautapen prozesuetan parte hartzen duten pertsonak bitarteko elektronikoen bidez harremanetan jarri beharko dira.

Hautaketa-prozesuen deialdiak eta horiek arautzen dituzten oinarriak Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN eta Udalaren web orriko (<https://www.beasain.eus>) dira, eta herritarren eskura jarriko dira egoitza elektronikoaren «EPE Enplegu publikorako Eskaintza» atalean.

2. Hautapen prozesuetan parte hartzen dutenek ondoko tramite hauek egin beharko dituzte bitarteko elektronikoen bidez:

- a) Parte hartzeko eskabidea eta eskabidearekin batera aurkeztu beharreko agiriak aurkeztea, deialdiaren oinarrietan aurreikusitakoarekin bat. Halaber, azterketa tasa edo eskubideak baliabide elektronikoen bidez ordainduko dira.
- b) Akatsak edo hutsegiteak zuzentzea.
- c) Merezimenduak alegatzea eta egiaztatzea.
- d) Destinoa aukeratzea.

- e) Parte hartzeko baldintzak betetzen direla egiaztatzen duten agiriak aurkeztea.
- f) Errekurtsoak eta erreklamazioak aurkeztea, deialdiaren oinarrietan ezarritakoaren arabera.
- g) Hautaketa-prozesuarekin zerikusia duen beste edozein izapide edo dokumentazio aurkeztea.

3. Beasaingo Udalak edo, hala badagokio, Epaimahai Kalifikatzaileak beretzat gordetzen du jatorrizko agiriak eskatzeko aukera, bai eta, zalantzarik izanez gero, merezimenduak behar bezala baloratzeko eta/edo baldintzak betetzeko beharrezkotzat jotzen dituen agiri osagarriak ere.

4. 2. paragrafoan adierazitako izapideak egiteko, Beasaingo Udalaren web orrian sartu behar da, Egoitza Elektronikoko «Enplegu Publikoa» atalean, eta hori guztia ordenantza honetako 3. artikuluan ezarritako prozedurari jarraiki

5. 2. atalean adierazitako izapideak aurkeztu eta egiteko, ordenantza honen xede diren hautaketa-prozesuetan parte hartu nahi duten pertsonak Beasaingo Udalak onartutako identifikazio- eta sinadura-sistema elektronikoak erabili ahal izango dituzte. Sistema horien zerrenda egoitza elektronikoan dago

2. artikulua. Beasaingo Udaleko enplegatu publiko izateko hautapen prozesuetako tramiteak bitarteko elektroniko bidez egiteko baldintza orokorrak.

1. 1.2 artikuluan aipatzen diren tramiteak, bitarteko elektroniko bidez egiteko, deialdiaren oinarrietan ezarritakoari jarraituko zaio. Bereziki, eskaerak aurkezteko epea haietan ezartzen dena izanen da.

2. Bitartekoen erabilerari dagokionez, honako hauek aplikatuko dira: urriaren 1eko 39/2015 Legea, Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoa; martxoaren 30eko 203/2021 Errege Dekretua, sektore publikoaren bitarteko elektroniko bidezko jarduketa- eta funtzionamendu-erregulamendua onartzen duena; eta ordenantza hau.

3. Beasaingo Udalak harreman telematikoak izateko herritarren eskura jartzen dituen euskarrietan zein euskarri horietan argitaratzen diren komunikazio eta agirietan bi hizkuntza ofizialen erabilera bermatuko du, herritarren hizkuntza hautua errespetatzeko.

3. artikulua. Beasaingo Udaleko enplegatu publiko izateko hautapen prozesuetako tramiteak bitarteko elektroniko bidez egiteko prozedura.

1. Parte hartzeko eskabidea eta horrekin batera aurkeztu beharreko agiriak, tasa edo azterketa eskubideak barne, baliabide elektroniko bidez aurkezteko, interesdunek prozedura honi jarraitu beharko diote:

a) Beasaingo Udalaren egoitza elektronikoan dagoen «EPE Enplegu Publikorako Eskaintza» atalera sartu eta zein deialditan parte hartu nahi den aukeratu.

b) Eskabidea aurkezteko prestatu den inprimaki elektronikora sartu eta bertan adierazten diren jarraibideei jarraitu.

c) Identifikazio eta sinadura elektronikorako, Beasaingo Udalak onartutako sistemak erabiliko dira, 1.5 artikuluan aipatu direnak.

2. Merezimenduak alegatu eta egiaztatzeko, bai eta destinoak aukeratzeko ere, interesdunek aurreko atalean adierazitako prozedurari jarraituko diote, baina parte hartzen ari diren deialdian horretarako prestatutako inprimaki elektronikora joko dute.

3. Beasaingo Udalari egotz dakioken gorabehera tekniko batek 1. eta 2. idatz-zatietan adierazitako inprimaki elektronikoak eskuratzea eragozten badu, izapide horiek erregistro elektronikoaren bidez egin ahal izango dira.

4. Igorri beharreko dokumentazioa onetsitako formatuak eta tamaina-mugak edo egoitza elektronikoan unean-unean adierazten den beste edozein motatakoak izan beharko ditu.

5. Transmisio elektronikoan akats formalak antzemanenez gero, sistemak berak jakinaraziko dio interesdunari, dagozkion errore-mezuen bidez, zuzendu ditzan, hala badagokio.

6. Izapidea onartzen bada, sistemak pantailan itzuliko du eta/edo aurkezpen-egiaztatgia emango du, gorde dadin.

4. artikulua. Nahitaezko komunikazio eta jakinarazpen elektronikoak.

1. 1. artikuluko 2. paragrafoan aipatzen diren pertsonak bitarteko elektronikoen bidez jaso beharko dituzte ordenantza honen xede diren eta argitaratzen ez diren hautapen prozesuetatik sortzen diren komunikazio eta jakinarazpenak.

2. Aurreko atalean ezarritakoa gorabehera, Beasaingo Udalak edo, hala badagokio, Epaimahai Kalifikatzaileak komunikazioak eta jakinarazpenak bitarteko ez-elektronikoen bidez egin ahal izango ditu kasu hauetan:

a) Interesdunak Udaleko Giza Baliabideen departamentuan bere kabuz agertu eta une horretan bere jakinarazpen pertsonala eskatzen duenean egiten denean jakinarazpena.

b) Bitarteko elektronikoen bidezko komunikazioak edo jakinarazpenak administrazio-jardunaren eraginkortasuna ziurtatu ezin duenean.

3. Komunikazioa edo jakinarazpena bitarteko elektroniko eta ez-elektronikoen bidez egiten bada, ondorio guztiak egintzat joko dira behar bezala egindako lehen komunikazio edo jakinarazpenetik aurrera.

4. Antolakuntza eta Giza Baliabideen azpisailak egindako jakinarazpen elektronikoetarako sarbidea Udalaren egoitza elektronikotik egingo da, eta interesdunak sinadura elektronikoaren bidez jakinarazitako egintzaren edukia eskuratzen duen unean egindakotzat joko dira, Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 43.2 artikuluko bigarren paragrafoan ezarritakoaren kalterik gabe.

XEDAPEN GEHIGARRIAK

Lehen xedapen gehigarria.

Hautapen prozesuaren ezaugarriak kontuan hartuta, salbuespen gisa, deialdiaren oinarrietan 1.2 artikuluan adierazitako tramiteak paperean egiteko aukera aurreikusi ahal izanen da.

Bigarren xedapen gehigarria.

Langileen arloan eskumena duen zinegotziak erabaki ahal izango du ordezeko paperean betetzea, behar bezala arrazoitutako salbuespenezko inguruabarrak direla-eta, edo behar bezala frogatutako gorabehera tekniko batek sistemen ohiko funtzionamendua epearen barruan eragozten duenean.

Hirugarren xedapen gehigarria.

Hautapen prozesuaren ezaugarriak kontuan hartuta, salbuespenez, deialdiaren oinarriek aukera eman ahalko dute hautapen prozesuetako tramiteak bitarteko elektronikoen bidez egiteko, C2 azpitalde sailkapeneko eta lanbide taldeak biltzen dituen taldeko lanpostuetan sartzeko.

XEDAPEN IRAGANKORRAK

Lehen xedapen iragankorra.

Beasaingo Udalak administrazio publikoen arteko elkarreragingarritasun osoa bermatu ezin duen bitartean, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzko urriaren 1eko 40/2015 Legearen III. tituluko IV. kapituluaren aurreikusitako moduan, datuen bitartekotzarako plataformetan edo horretarako gaitutako beste sistema elektroniko batzuetan kontsulta eginez, parte hartzeko baldintzak betetzen direla egiaztatzen duten agiriak paperezko euskarrian aurkeztuko dira.

Bigarren xedapen iragankorra.

Ordenantza honetan jasotakoak, ordenantza hau indarrean sartu ondoren Beasaingo Udaleko enplegatu publiko izateko deitzen diren hautapen prozesuetan aplikatuko da.

AZKEN XEDAPENAK

Azken xedapenetan lehena.

Langileen arloan eskumena duen zinegotziak behar diren ebazpen eta jarraibideak eman ahal izango ditu ordenantza hau aplikatu eta garatzeko.

Azken xedapenetan bigarrena.

Ordenantza honek Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzen den egunean hartuko du indarra.”

e.- BEASAINGO ASEGURU-PRIBATUEN ZERBITZU-KONTRATAZIOA. ESLEIPENA.
2023PEBO0014

Ezagutzera eman da kontratazio mahaiaren akta, hots:

“1.- 2023-04-04 aktan islatzen den A artxibo elektronikoaren dokumentazioaren kalifikazioa, 2023-04-17an B artxibo elektronikoari irekiera eman zitzaion (automatikoki baloratzen diren irizpideak).

Gogorarazten da bost enpresa lizitatzailerik aurkeztu direla lote ezberdinetara, eta 4. lotea (kargu publikoen eta enplegatuen erantzukizun zibila) hutsik geratu dela, lizitatzailerik aurkeztu ez delako.

2.- Esleipen irizpideak ondorengoak dira:

- Eskaintza ekonomikoa: 70 puntu.
- Hobekuntzak: 30 puntu.

Jasota uzten dira enpresa lizitatzailerik proposatutako eskaintza eta hobekuntzak, parte hartu duten loteen arabera banakatuta

1 LOTEA / LOTE 1 (higiezinei kalteak / daños a inmuebles)

Lizitazio prezioa (errekargu eta zergarik gabe) / Precio de licitación (sin recargo ni impuestos):
45.000 €/urteko

Enpresak/ empresas	Eskaintza urteko oferta anual (Prima guztira / Prima total)	Hobekuntza frankizia orokorrean Mejora en franquicia general	Hobekuntza frankizia espezifiko Mejora en franquicia específica
BILBAO CIA ANÓNIMA DE SEGUROS Y REASEGUROS S.A.	38.616,10 €	150 € / ezbehar bakoitzeko	500 € / ezbehar bakoitzeko
AXA SEGUROS GENERALES SOCIEDAD ANONIMA DE SEGUROS Y REASEGUROS	38.700,00 €	150 € / ezbehar bakoitzeko	400 € / ezbehar bakoitzeko
HELVETIA COMPAÑÍA SUIZA, SOCIEDAD ANÓNIMA DE SEGUROS Y REASEGUROS	38.420,00 €	0,00 € / ezbehar bakoitzeko	500 € / ezbehar bakoitzeko
SEGUROS LAGUN ARO S A	37.273,00 €	0,00 € / ezbehar bakoitzeko	0,00 € / ezbehar bakoitzeko

MAPFRE ESPAÑA COMPAÑIA DE SEGUROS Y REASEGUROS S A	37.945,57 €	0,00 € / ezbehar bakoitzeko	200 € / ezbehar bakoitzeko
---	-------------	--------------------------------	-------------------------------

2 LOTEA / LOTE 2 (erantzukizun zibila / responsabilidad civil)

Lizitazio prezioa (errekargu eta zergarik gabe) / Precio de licitación (sin recargo ni impuestos):
30.000 €/urteko

Enpresak/ empresas	Eskaintza urteko oferta anual (Prima guztira / Prima total)	EZeko aseguruaren frankizian hobekuntza / Mejora en franquicia del seguro RC	Aseguratutako mugetan hobekuntzak Mejora en límites asegurados
SEGUROS LAGUN ARO S A	27.996,35 €	0,00 € por siniestro.	Ezbeharreko eta aseguru urteko 5.000.000,00 €ko aseguratutako muga eta 800.000,00 €ko azpimuga biktimako, polizaren berme guztiei aplikagarria. Límite asegurado de 5.000.000,00 € por siniestro y anualidad de seguro con un sublímite por víctima de 800.000,00 € aplicable a todas las garantías de la póliza.
MAPFRE ESPAÑA COMPAÑIA DE SEGUROS Y REASEGUROS S A	27.037,50 Euros	150,00 € por siniestro.	Ezbeharreko eta aseguru urteko 5.000.000,00 €ko aseguratutako muga eta 800.000,00 €ko azpimuga biktimako, polizaren berme guztiei aplikagarria. Límite asegurado de 5.000.000,00 € por siniestro y anualidad de seguro con un sublímite por víctima de 800.000,00 € aplicable a todas las garantías de la póliza.

--	--	--	--

3 LOTEA / LOTE 3 (ibilgailuak / vehículos)

Lizitazio prezioa (errekargu eta zergarik gabe) / Precio de licitación (sin recargo ni impuestos):
6.000 €/urteko

Enpresak/ empresas	Eskaintza urteko oferta anual (Prima guztira / Prima total)	3.enaren kontsiderazioa consideración de 3º	Sutea (motos) Incendio (motorrak)	Lapurreta (motos) Robo (motorrak)
HELVETIA COMPAÑÍA SUIZA, SOCIEDAD ANÓNIMA DE SEGUROS Y REASEGUROS	4.610,00 €	BAI	BAI	BAI
SEGUROS LAGUN ARO S A	4.493,11 €	BAI	BAI	BAI

3.- Aurkeztutako eskaintzen balorazioa egin ondoren, enpresa lizitatzailleek lortutako puntuazioa lote bakoitzeko ondorengoa da.

1 LOTEA / LOTE 1 (higiezinei kalteak / daños a inmuebles)

Enpresak empresas	Eskaintza urteko (Prima guztira) Oferta anual (Prima total)	Hobekuntza frankizia orokorrean Mejora en franquicia general	Hobekuntza frankizia espezifikoa Mejora en franquicia específica	Guztira puntuazioa Total puntuación
BILBAO CIA ANÓNIMA DE SEGUROS Y REASEGUROS S.A.	67,57 p.	7,50 p.	0,00 p.	75,07 p.
AXA SEGUROS GENERALES SOCIEDAD ANONIMA DE SEGUROS Y REASEGUROS	67,41 p.	7,50 p.	2,5 p.	77,41 p.
HELVETIA COMPAÑÍA	67,91 p.	15,00 p.	0,00 p.	82,91 p.

SUIZA, SOCIEDAD ANÓNIMA DE SEGUROS Y REASEGUROS				
SEGUROS LAGUN ARO S. A.	70,00 p.	15,00 p.	15,00 p.	100,00 p.
MAPFRE ESPAÑA COMPAÑIA DE SEGUROS Y REASEGUROS S A	68,76 p.	15,00 p.	7,5 p.	91,26 p.

2 LOTE A / LOTE 2 (erantzukizun zibila / responsabilidad civil)

Enpresak empresas	Eskaintza urteko (Prima guztira) Oferta anual (Prima total)	EZeko aseguruaren frankizian hobekuntza Mejora en franquicia del seguro RC	Aseguratutako mugetan hobekuntzak Mejora en límites asegurados	Guztira puntuazioa Total puntuación
SEGUROS LAGUN ARO S. A.	67,60 p.	15,00 p.	15,00p.	97,60 p.
MAPFRE ESPAÑA COMPAÑIA DE SEGUROS Y REASEGUROS S. A.	70,00 p.	7,50 p.	15,00 p.	92,50 p.

3 LOTE A / LOTE 3 (ibilgailuak / vehículos)

Enpresak empresas	Eskaintza urteko (Prima guztira) Oferta anual (Prima total)	3.enaren kontsiderazioa consideración de 3º	Sutea (motos) Incendio (motorrak)	Lapurreta (motos) Robo (motorrak)	Guztira puntuazioa Total puntuación

HELVETIA COMPAÑÍA SUIZA, SOCIEDAD ANÓNIMA DE SEGUROS Y REASEGUROS	68,23 p.	15,00 p.	7,50 p.	7,50 p.	98,23 p.
SEGUROS LAGUN ARO S. A.	70,00 p.	15,00 p.	7,50 p.	7,50 p.	100,00 p.

Horren ondorioz, Kontratazio Mahaiak kontratazio organoari (Udalbatza Osoa) ondorengo esleipen proposamena egiten dio:

Lehenik. Beasaingo Udalaren aseguru pribatuen 1., 2. eta 3. loteak esleitzea, onartutako baldintza-agiriei (administratiboa eta teknikoa) eta enpresa lizitatzailleek aurkeztutako eskaintzei jarraiki, honela:

1 LOTEA / LOTE 1 (higiezinei kalteak)

Esleipenduna : SEGUROS LAGUN ARO S. A.

Urteko prima guztira: 37.273,00 €

Hobekuntzak :

Hobekuntza franquizia orokorra	Hobekuntza frankizia espezifikoa matrikulak irakurtzeko kamaretan eta kalte aseguruaren informazio-pantailan
0,00 € / ezbehar bakoitzeko	0,00 € / ezbehar bakoitzeko

2 LOTEA / LOTE 2 (erantzukizun zibila)

Esleipenduna: SEGUROS LAGUN ARO S. A.

Urteko prima guztira / Prima total anual: 27.996,35 €

Hobekuntzak:

EZeko aseguruaren frankizian hobekuntza /	Aseguratutako mugetan hobekuntzak
0,00 € por siniestro.	Ezbeharreko eta aseguru urteko 5.000.000,00 €ko aseguratutako muga eta 800.000,00 €ko azpimuga biktimako, polizaren berme guztiei aplikagarria.

3 LOTEA (ibilgailuak)

Esleipenduna: SEGUROS LAGUN ARO S. A.

Urteko prima guztira: 4.493,11 €

Hobekuntzak:

Beasaingo Udalekoak diren ibilgailuei hirugarrenen izaera ematea, euren arteko kolpeetan eta Udalaren berezko ondareari kolpeak.	Hirugarren mailako (motorrak) sutearen bermea eskaintzea.	Hirugarren mailako (motorrak) lapurreta bermea eskaintzen
BAI	BAI	BAI

Bigarren. 4. lotea (kargu publikoen eta enplegatuen erantzukizun zibil profesionala) hutsik uztea, enpresa lizitatzailerik aurkeztu ez delako.

Hirugarren. Egikaritze epea: Bi urte 2023-09-01etik kontatzen hasita.

Laugarren. Luzapenak: Hiru urte, bakoitza urtebetekoa.

Bosgarren. Berme epea: Urtebete, kontratua amaitu eta hurrengo egunetik aurrera.

Seigarren. Kontratuaren arduraduna, Antolakuntza eta Giza Baliabide azpi arloko arduradun teknikaria izango da.

Zazpigarren. Esleipendunei eskatzea hamar egun balioduneko epean, errekerimendua egin eta hurrengo egunetik aurrera zenbatzen hasita, dokumentazio hau aurkez dezala:

1. Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituela egiaztatzen duen ziurtagiria, EJZn alta emanda.
2. Behin betiko fidantza. Kopurua

Fidantza / fianza	SEGUROS LAGUN ARO S.A.
1.- LOTEA	2.424,11 €
2.- LOTEA	2.588,66
3.- LOTEA	410,21 €

Zortzigarren. Fidantza eta bestelako dokumentazioa aurkeztu ondoren, behin betiko esleipena egingo da, Alkatearen aldetik eta ondoren, dagokion administrazio-kontratua sinatu beharko da.”

Hitz egiteko txanda eman ondoren, iritzi hauek azaldu dira:

Hasier Agirre Elkoroberezibar jaunak (Beasaingo EH Bildu): “Batzordean ere aipatu genuen. Loteak egin direla eta 4.ena hutsik geratu da. Orain esaten da, lote hau urtero kontratu txiki bidez burutuko dela. Ez dakit egitea dagoen urte baino gehiagotan.”

Alkate andreak (EAJ-PNV): "Aurten kontratu txikiaren bitartez solbentatuko dugu aseguru mota hau, baina on beharrez lizitazio bat atera beharko genuke 4. sorta honetarako eta ahal bada besteen bukaerarekin bat egin. Orain aurrekontuak eskatuko ditugu eta horren baitan jokatu dugu."

Gaia behar adina eztabaidatu ondoren, bozketa egin da eta aho batez onartu da proposamena.

3.- HERRITARRAK BATZORDEKO PROPOSAMENAK:

a.- HITZARMENA SOZietate Publikoa ALOKABIDE S.A.REKIN, UDAL ETXEBIZITZAK KUDEATZEKO. 2023BIBO0003

Alkate andreak, Herritarrak batzordeko ondorengo proposamenaren berri eman du:

"AURREKARIAK

I. Sozietate Publikoa Alokabide S.A.k Beasaingo Udalarekin harremanetan jarri da, Udalen Bizigune Programaren barruan erakundeen artean lankidetzaz sustatzeko helburuarekin.

Programa honen bitartez, Alokabide S.A.k, babes ofizial gisa hartzen ez diren eta hutsik dauden udal jabetzako etxebizitza libreak eskuratzeko lan egiten du. Hori guztia, herritarrek, zehazkiago gazteek eta baliabide gutxi dituzten familiek, dituzten arazoetako bati (etxebizitza duina izatea) erantzun eraginkorra emateko.

Etxebizitzak Alokabide S.A. Sozietate Publikoari lagatzen zaizkio, 6 urteko iraupen luzagarria izango duen gozamen kontratu baten bidez. Era berean Alokabide S.A. arduratuko da etxebizitza bakoitzeko errentamenduko hileko kanona Udalarik ordaintzeaz, gozamen-kontratuak irauten duen bitartean.

Etxebizitzen esleipena Alokabide S.A.k egiten du, Etxebiden erregistroan izena eman duten pertsonen artean, Bizigune programarako ezarritako baldintzei eta baremazioei jarraituz. Udalerri baldintza gisa jar dezakete udalerrian erroldatuta dauden eskatzaileek lehentasuna izatea, gehienez hiru urteko antzintasunarekin erroldatuta.

Udal Bizigune Programa martxan jarri ondoren, Alokabide S.A.k bere gain hartuko ditu alokairuaren alderdi guztiak eta kontratua amaitzean etxebizitzak baldintza egokietan itzultzeaz arduratzen da.

II. Ondorengo etxebizitzak:

- Errekarte kaleko 31-1D
- Errekarte kaleko 31-2D
- Oriako Pasealekua 14-4D

Jadanik ez daude babes ofizial gisa hartuta eta hutsik aurkitzen dira.

OINARRI JURIDIKOAK

- 2/ 2016 Legea, apirilaren 7koa, Euskadiko toki Erakundeei buruzkoa. 17. Art. Udalerrien eskumen propioak:

7) Etxebizitzaren plangintza, programazioa eta kudeaketa.

PROPOSAMENA

Herritarrek batzordeak Osoko Bilkurari ondorengo erabaki proposamena egiten dio:

Lehenik: Beasaingo Udalak jabetzan dituen etxebizitzaren erabilera, ondoren aipatzen direnak, Alokabide S.A. Sozietate Publikoari lagatzea, Udal Bizigune Programara destinatzeko:

- Errekarte kalea 31-1D
- Errekarte kalea 31-2D
- Oriako Pasealekua 14-4D

Bigarren: Erabileraren lagapenak hitzarmena sinatzen den egunetik aurrera izango ditu ondorioak, eta 6 urteko iraupena izango du. Alderdiek espreski adostu ondoren, luzatzeko aukera egongo da.

Hirugarren: Erabileraren lagapena ondorengo dokumentuetan jasotako baldintzen arabera egiten da:

- Erantsita doan hitzarmena .
- I eta II eranskinak.
- Etxebizitza bakoitzaren gozamen kontratuak .

Laugarren: Alkateari ahalmena ematea hitzarmena, eranskinak eta adierazitako etxebizitzaren gozamen kontratuak sinatzeko.

Hitz egiteko txanda eman ondoren, iritzi hauek eman dira:

Nerea Manzisidor Mendizabal andreak (Beasaingo EH Bildu): “Planteatzen den hitzarmenaren ondoren, emergentziazko pisu bakarra geratuko da udal jabetzarena. Iruditzen zaigu eskasa izan daitekeela nahiz eta historiala zein de jakin, hau da, urte askotan erabili behar ez izanak ez du esan nahi emergentziaren bat suertatu ez daitekeenik, adibidez biolentzia matxistaren ondorioz emakumeren batek behar izatea. Beraz, ezezkoa bozkatuko dugu.”

Alkate andreak (EAJ-PNV): “Historikoa kontuan hartuta eta oker ez banago larrialdietarako dugun etxebizitza hau, azken hiru lau urteetan ez da erabili (abenduren baten bai, sute baten ondorioz), eta leheneste aldera pentsatu dugu hobe dela etxebizitzak funtzio soziala betetzea eta larrialdiren bat suertatuko balitz, beste baliabideren batzuk erabiliko genituzke: pertsonak artatu eta alojamendua eman.”

Malu Valles Fernandez andreak (EAJ-PNV): “Hay un servicio que se da desde Diputación para situaciones de maltrato o de violencia de género. En la única situación que se nos ha dado, la persona decidió utilizar un servicio de Diputación, por estar fuera del municipio. Tener un piso vacío durante años a la espera de no sabemos muy bien qué, no parece muy ético.”

Nerea Manzisidor Mendizabal andreak (Beasaingo EH Bildu): “Logikoa izan daiteke eta ulertzen dut txarrak jasaten dituzten emakumeek udalerrri bertan ez geratu nahi izatea, baina duela hilabete batzuk Arana kalean izan dugu etxe baten sute bat eta gertatu daiteke beharra izatea familiarentzat. Kontuan izanda Beasaingo Udalak duen gerakina, ez zaigu iruditzen etxe bat, bi errentan emateagatik udala aberastu behar denik. Ez da berdina hotel

bateko gela batean egotea edo familiarekin etxe batera joatea eta beste goxotasun batekin egotea. Iruditzen zaigu Udalak baliabide horiek izan beharko lituzkeela.”

Alkate andreak (EAJ-PNV): “Guk etxebizitza hauek alokatzen proposatzen dugunean ez dugu pentsatu alokairuaren bidea jaso behar dugun dirua, baizik eta gure etxebizitza politikaren arabera, Udalak hutsik dituen etxebizitzak betetzea izan daiteke neurri eraginkorretako bat. Horrelakorik suertatuko balitz aurkituko genituzke baliabide habitazionalak erantzun egokia emateko.

Gaia behar adina eztabaidatu ondoren, eta ezagututa Idazkariaren txostena, bozketa egin da eta ondorengo emaitza lortu da:

Aldeko botoak: 12 (EAJ-PNV, Sozialistas Vascos-Euskal Sozialistak)

Aurkako botoak: 5 (Beasaingo EH Bildu)

Abstentzioak: 0

Horren ondorioz, proposamena gehiengo osoarekin onartu da.

b.- URA ETA ZABOR TASEN ETA UDAL KIROLDEGIKO ZERBITZUEN ERABILTZEAGATIKO TARIFEN ARLOAN LAGUNTZAK EMATEKO OINARRIAK. 2023.URTEA. 2023BIBO0007

Alkate andreak Herritarrak batzordeko proposamenaren berri eman du:

“AURRERAKINAK

1.- Beasaingo Udala laguntzen udal-politika bat aplikatzen ari da, karga ekonomikoa murrizteko edo baliogabetzeko:

- Ohiko etxebizitzako uraren eta zaborraren udal-tasak ordainketa.

- Udal kiroldegia erabiltzeagatiko tarifak ordainketa.

2.-2023-04-11. Gizarte ongizate azpisaileko arduradun teknikoak egindako txostena.

3.- Aurrekontuko diru-izendapena badago:

-Kontusaila: 0220.480.231.00.01

-Zenbatekoa: 59.000€

-Helburua: “Udal tasen inguruko laguntzak”.

LEGERI APLIKAGARRIA

-2/2016 Legea, apirilaren 7koa, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoa. Udalerrien eskumen propioak, 17. Artikulua: Diru-sarreraren bermea eta gizarteratzea antolatzea, programatzea eta kudeatzea.

-Euskal Herriko 1/2007 Legea, otsailaren 22koa, Garapenerako Lankidetzari buruzkoa.

-Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra.

-Uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuak onartutako Diru-laguntzen Erregelamendu Orokorra.

-Diru-laguntzak arautzen dituen udal-araua.

-Beasaingo Udalaren Dirulaguntzen Plan Estrategikoa 2023-2025.

PROPOSAMENA

Herritarrek batzordeak Osoko Bilkurari ondorengo erabaki proposamena egiten dio:

Lehenik: Ura eta zabor tasen arloan eta udal kiroldegiko zerbitzuen erabiltzeagatiko tarifen arloan laguntzak emateko oinarriak onartzea.

Bigarren: Alkateari dagokion deialdia egitea, oinarriak argitaratuz.”

Hitz egiteko txanda eman ondoren, iritzi hauek eman dira:

Eva Alvarez Atanes andreak (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak), Hitza hartzeko txanda Beasaingo EH Bilduri laga dio beraiek esan behar duenarekin bat egiten duelako. Berak puntu honen bukaeran hartuko duela hitza esan du.

Nerea Manzisidor Mendizabal andreak (Beasaingo EH Bildu): “Guk kiroldegiko laguntzari buruz behin eta berriz azaldu dugu gure iritzia. Gure ustetan hobari gehiago eman behar dira ez bakarrik uda kanpainarako baizik eta urte guztirako. Batzordean azpimarratu izan dugu laguntza hauek aurrez eman beharra eta ez ondoren. Laguntza den heinean ez dugu ezezkoa bozkatuko baina abstenitu egingo gara.”

Malu Valles Fernandez andreak (EAJ-PNV: “Las decisiones se toman teniendo en cuenta multitud de criterios. En este caso, uno de ellos es el hecho de que es el Ayuntamiento quien se va a encargar de la gestión total, pero Diputación nos facilita los datos cuando finaliza la campaña de la renta. Hasta ahora los ciudadanos tenían que aportarnos toda la documentación de carácter económico y para muchos de ellos era complicada. Teníamos dos situaciones: en una se subvencionaba con anterioridad y en otra con posterioridad. Para el departamento la gestión suponía un caos. Estas bases contemplan que el abono de la subvención lo será con posterioridad al pago de las tasas y tarifas (transitoriamente este año puede que abonen dos veces y no cobren, pero el año 2024 se regulariza). Otra novedad es que antes había diferentes baremos pero ahora se unifican. Este gobierno entiende que el polideportivo ya se encuentra bonificado, pero considerando que puede ser un lugar de socialización, el objetivo es que ningún menor se quede sin poder disfrutar de la piscina y que eso no sea un elemento discriminatorio. No creemos que el deporte que se desarrolla en el polideportivo se tenga que subvencionar aún más, ya que hay otras maneras de subvencionar el deporte de manera gratuita. Lo que se subvenciona no es la práctica del deporte sino la socialización de los menores. Teniendo en cuenta todo ello se han elaborado las ayudas que se someten a aprobación.”

Eva Alvarez Atanes andreak (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak): “Nosotros queríamos decir que, en parte, estamos de acuerdo con la propuesta de Beasaingo EH Bildu en el sentido de valorar las situaciones en las que fuera necesario dar la ayuda previamente.”

Malu Valles Fernandez andreak (EAJ-PNV: “Yo entiendo que no va a quedar ningún ciudadano de Beasain que tenga una necesidad real sin esta ayuda, ya que tenemos un capítulo de ayudas para situaciones de emergencia que estén acreditadas y que se abonarían previamente al gasto.

Gaia behar adina eztabaidatu ondoren, bozketa egin da eta ondorengo emaitza lortu da:

Aldeko botoak: 12 (EAJ-PNV, Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak)

Aurkako botoak: 0

Abstentzioak: 5 (Beasaingo EH Bildu)

horren ondorioz, gehiengo osoarekin ura eta zabor tasen eta udal kiroldegiko zerbitzuen erabiltzeagatiko tarifen arloan laguntzak emateko ondorengo oinarriak onartu dira:

URA ETA ZABOR TASEN ETA UDAL KIROLDEGIKO ZERBITZUEN ERABILTZEAGATIKO TARIFEN ARLOAN LAGUNTZAK EMATEKO OINARRIAK. 2023 URTEA

ZIOEN AZALPENA

Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legeak, 17,1 artikuluan, udalerriaren eskumen propio gisa aurreikusten du: Diru-sarreraren bermea eta gizarteratzea antolatzea, programatzea eta kudeatzea.

Abenduaren 5eko, Gizarte Zerbitzuei buruzko 12/2008 Legeak 6. artikuluan adierazten duenez, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren helburua da, beste sistema eta politika publiko batzuekin lankidetzan eta koordinatuta, herritar guztien gizarte-ongizatea sustatzea, eta funtsezko helburuak honako hauek dira:

a) Pertsonen autonomia sustatzea eta mendetasun egoerek pertsonen eta familiei eragiten dizkieten beharrezkoen aurre hartu eta erantzutea.

b) Babesgabezia egoerek eragiten dituzten beharrezkoen aurre hartu eta erantzutea.

c) Bazterketa egoerei aurre hartu eta erantzutea eta pertsonen, familien eta taldeen gizarteratzea sustatzea.

d) Larrialdi egoerek pertsonen eta familiei eragiten dizkieten beharrezkoen aurre hartu eta erantzutea.

Lehen aipatutako helburuak betetzen laguntzeko, ura eta zabor tasen eta udal kiroldegiko zerbitzuen erabiltzeagatiko tarifen arloan laguntzak emateko oinarri hauek prestatu dira, eta aurrerago adieraziko dira, honako hauek kontuan hartuta:

- Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorra eta hura garatzeko erregelamendua, 887/2006 Errege Dekretuaren bidez onartua.

- Dirulaguntzak arautzen dituen Udal Ordenantza (GAO, 2018/06/14).

- Beasaingo Udalaren 2023-2025eko dirulaguntzen plan estrategikoa (1. helburu estrategikoa: gizarte-ekintza sustatzea. 1.2 ildoak: baliabide ekonomiko urriak dituzten pertsonen laguntzea).

Laguntza horiek, azken hamarkadetan onartu eta eman direnak, lehen aipatutako helburuak lortzen laguntzen dute, bai eta baliabide ekonomiko urriak dituzten pertsonak egoera ekonomiko prekarioago batera igaro ez daitezen ere.

1. XEDEA

Oinarri hauen helburua zera da, udalerriko giza talderik behartsuenentzat, karga ekonomikoa murrizteko edota deuseztatze balioko duen laguntzen udal-politika garatu eta gauzatzea, hau da:

- Ohiko etxebizitzako ura eta zabor-tasen ordainketa.
- Udal kiroldegia erabiltzeagatik ordaindu beharreko tarifak ekainetik irailera bitartean bakarrik ordainduko dira, biak barne.

Laguntzak aurreko ekitaldiko tasen/tarifen ordainketari dagozkion zenbatekoen gainean aplikatuko dira.

2. AURREKONTUA

1 0220.480.231.00.01 aurrekontuko kontu sailean 59.000 euroko kreditua esleitu da ura eta zabor tasen eta udal kiroldegia zen bitzuen erabiltzeagatik tarifa arloan laguntza emateko.

Baimendutako gastuaren zenbatekoa (59.000,00 €) handitu ahal izango da aldaketaren zenbatekoa dela eta eskumena esleitu duen organoaren aldetik baina beti ere aurkeztutako eskabideak ebatzi aurretik. Horrek ez du beste deialdirik ekarriko.

3. ONURADUNAK

Oinarri hauetan jasotako laguntzen onuradunak izateko, ondorengo baldintzak bete behar dira:

- Beasainen erroldatuta egotea laguntza eskatzen den zerbitzua erabiltzen hasten den egunean.
- Eskatzailearen bizikidetzak-unitateak ez du gaitu behar 4.3 atalean ezarritako urteko diru-sarreraren eta ondarearen muga .

4. DIRU-LAGUNTZAK ZEHAZTEKO IRIZPIDEAK ETA HORIEN ZENBATEKOA

4.1 Tasen arloko laguntzak lortzeko

1. Egindako gastuaren % 100a jasoko dute elkarbizitza unitateek, baldin eta urteko diru-sarrera garbiak eta ondarea Gizarte Larrialdietarako Laguntzen urteko diru-sarreraren eta ondarearen muga sartzen badira. Gehieneko zenbatekoa 450 €.

2. Egindako gastuaren % 75a jasoko dute elkarbizitza unitateek, baldin eta urteko diru-sarrera garbiak Gizarte Larrialdietarako Laguntzen baremoko urteko diru-sarreraren 1 eta 1,5 muga artean sartzen badira eta ondarearen muga gaitutzen ez badute. Gehieneko zenbatekoa: 350 €.

3. Egindako gastuaren % 50a jasoko dute elkarbizitza unitateek, baldin eta urteko diru-sarrera garbiak Gizarte Larrialdietarako Laguntzen baremoko urteko diru-sarreraren 1,5 eta 2 muga artean sartzen badira eta ondarearen muga gaitutzen ez badute. Gehieneko zenbatekoa: 250€

4. Bizikidetzak-unitateak hartuko dira etxebizitzan erroldatutako pertsona guztiak.

5. Etxebizitza bakoitzeko eskaera bakarra egin ahal izango da.

4.2 Udal kiroldegiko zerbitzuen erabiltzeagatik tarifa arloko laguntzak jasotzeko

1. Egindako gastuaren % 60a jasoko dute elkarbizitza unitateek, baldin eta urteko diru-sarrera garbiak eta ondarea Gizarte Larrialdietarako Laguntzen urteko diru-sarreraren eta ondarearen muga sartzen badira.

2. Egindako gastuaren % 30a jasoko dute elkarbizitza unitateek, baldin eta urteko diru-sarrera garbiak Gizarte Larrialdietarako Laguntzen baremoko urteko diru-sarreraren 1 eta 1,5 muga artean sartzen badira eta ondarearen muga gaitutzen ez badute.

3.- Ekainetik irailera bitarteko tarifak baino ez dira diruz lagunduko.

4.- Bizikidetza-unitatea zehazteko, Gizarteratzeko eta Diru Sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemaren abenduaren 22ko 14/2022 Legearen 25. eta 26. Artikuluetan xedatutakoari jarraituko zaio.

4.3 Urteko dirusarrerak eta ondarearen muga

Gizarte Larrialdietarako Laguntzen urteko diru-sarreraren muga, elkarbizitza unitateko neurriaren arabera, ondorengo da:

- 1 pertsona: 14.078,70 €
- 2 pertsona: 18.078,48 €
- 3 edo gehiago: 19.998,36 €

Gizarte Larrialdietarako Laguntzen urteko ondarearen gehieneko muga, elkarbizitza unitateko neurriaren arabera, ondorengo da:

- 1 pertsona: 37.543,20€
- 2 pertsona: 48.209,28€
- 3 edo gehiago: 53.328,96€

5. DIRU-SARREREN ZENBAKETA

Eskatzaileak eta bere elkarbizitza unitateko kideak 2022. ekitaldi ekonomikoan izandako urteko diru-sarrera garbiak zenbatuko dira.

Kontutan hartuko dira:

a) Urtean lortutako diru-sarrera garbiak: laneko etekinak, pentsioak, prestazioak edota laguntzak.

b) Ondasun higikorra.

Elkarbizitza unitateak ondasun higiezinak (2. Etxebizitza edo lokalak) %100aren jabetzan baditu, ez ditu laguntza hauek jasoko. Ohizko etxebizitza ez da kontutan hartzen.

6. DIRULAGUNTZEN BATERAGARRITASUNA

Oinarri hauetan zehaztutako dirulaguntzak bateragarriak izango dira beste erakundeek emandako laguntzekin. Kasu horretan Udalari jakinarazi beharko zaio. Hala ere, ezin daiteke inolaz ere gain finantzazio kasurik izan; hau da, beste entitateekin batera diru-laguntza moduan emandako kopurua ezin da gastuaren balioa baino handiagoa izan.

7. ESKAERAK ETA AURKEZTU BEHARREKO AGIRIAK

Eskaerak aurkeztuko dira:

Aurrez aurre

iGunean, astelehentik ostiralera:

8:30-13:30

Posta arruntaren bidez

Telematikoki: www.beasain.eus

Aurkeztu beharreko dokumentazioa honakoa izango da:

- a) Eskatera orria, behar bezala beteta eta sinatuta (I eranskina)
- b) NANik edo AIZrik ez badu, eskatzailearen pasaportearen fotokopia eta berarekin erroldatuta eta familia unitatea osatzen dutenena. Kasu horretan, horien guztien egoera ekonomikoa egiaztatu beharko da.
- c) Zabor-tasa ordaindu izanaren egiaztageria, etxebizitzaren jabea ez izanik tasa ordaindu duen kasuetan bakarrik.
- d) Ur tasa ordaindua izan den ordainageria. Fakturazioa eraikinekoa denean, eraikineko fakturak eta eskatzaileari dagokion kontsumo-zatiaren agiria (II eranskina).
- e) Udal kiroldegiko zerbitzuen erabileragatik ordaindutako tarifaren ordainageria (ekaina-iraila).

8. DOKUMENTAZIO ELKARRERAGILEA ETA EGIAZTAGARRIA.

1. Urriaren 1eko 39/2015 Legeak, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearenak, 28. artikuluan aitortzen du herritarrek eskubidea dutela dagoeneko administrazio jardulearen esku dauden edo beste edozein administrazio egin dituen dokumentuak ez aurkezteko; horrela, administrazio jarduleak dokumentu horiek kontsultatu edo eskatu ahal izango ditu, salbu eta interesdunak horren aurka egiten badu. Administrazio publikoek elektronikoki bildu behar dituzte dokumentuak, beren sare korporatiboen bidez edo datuen bitartekaritza-plataformei edo horretarako gaitutako beste sistema batzuei kontsulta eginez.

2. Beasaingo Udala Euskadi Nisae-ko administrazioen elkarreragingarritasun- eta segurtasun-korapiloaren parte da. Plataforma hori komuna da euskal sektore publikoko administrazio eta erakunde guztientzat, eta datu elektronikoen trukea haien artean eta gainerako administrazioekin ezartzeko nodo autonomiko gisa. Horrez gain, Beasaingo Udalak foru sare korporatiboko aplikazioak edo dokumentuak egiaztatze eta lortzeko aukera ematen duten beste sistema batzuk erabiliko ditu.

3. Deialdi honetan, plataforma korporatiboen, bitartekaritza-plataformen (Nisae) edo sarbide publikoko plataformen bidez egiaztatuko diren betekizunak honako hauek izango dira:

a) Poliziaren Zuzendaritza Nagusia: NA-AIZ, datuak eta egiaztapena.

b) Gipuzkoako Foru Aldundia:

- PFEZ
- Kontuak
- Ondasun higiezinak
- Ondarea
- Foru Ogasunarekiko zerga- betebeharrak egunean izatea.

c) Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorra: Gizarte Segurantzarekiko zerga-betebeharrak egunean izatea.

d) Gizarte Segurantzako Institutu Nazionala: Gizarte-prestazio publikoak.

4. Erakunde eskatzailea egiaztapen horren aurka badago, berak aurkeztu beharko du dokumentazioa.

5.Oinarri hauetan jasotako laguntzen eskatzailea Beasaingo Udalak aurreko ekitaldian emandako gizarte-larrialdietarako laguntzen onuradun izan bada, eskaera-orria eta laguntzaren xede diren tasak/tarifak ordaindu izanaren egiaztatzea baino ez ditu aurkeztu beharko.

6. Udalak egiaztatzen badu eskatzaileak aurkeztutako dokumentazioa osatu gabe edo nahikoa ez dela, 10 egun balioduneko epea emango dio eskatzaileari ez-betetzea edo akatsa zuzentzeko; epe horretan zuzenketarik egin ez bada, eskabidea artxibatu egingo da, beste izapiderik gabe

9. ESKAERA EGITEKO EPEA.

Oinarriak BDNSra bidaliko dira, eta GAO n argitaratzen direnean, eskaerak aurkezteko epea irekiko da 2023ko irailaren 1etik 30era.

Ezarritako epetik kanpo egindako eskaera guztiak ukatuko dira.

10. AZTERKETA ETA EBAZPENA

Udaleko Gizarte Ongizate azpi arloak laguntza-eskaeren espedienteak aztertuko ditu eta Alkateak ebatziko ditu. Eskaerak aurkezteko epea amaitu eta gehienez ere hurrengo 3 hilabeteetan, pertsona interesatuei hartutako erabakiaren berri jakinarazi egingo zaie.

11. UDAL ZORRAREN KONPENTSAZIOA

Laguntza hauen onuraduna Udal Ogasunetikiko zordun denean eta zorra mugaeguna igarotako zor garbi eskagarria denean, Udalak konpentsatu egingo du zor zaiona.

12. ORDAINTZEKO MODUA

Dagokion laguntza bi hilabeteko epean ordainduko da, ebazpena ematen den egunetik zenbatzen hasita.

13.- ARAU-HAUSTEAK

Datuak ezkututzeak edota oinarri hauetan ezarritako udal-laguntzetarako eskubidea ematen duten baldintzen arloan iruzurra egiteak, emandako laguntza kentzea eta pertsona onuradunak jasotako diru-kopuruak itzuli behar izatea ekarriko dute.

14.- DATUEN BABESA

Eskatzaileen datuen tratamendua abenduaren 5ko 3/2018 Lege Organikoaren arabera izango da.

15.- APLIKATUKO DEN ARAUDIA

Deialdi honetan aurreikusten ez den orotarako 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa,

Administrazio Publikoen Administrazio prozedura Erakundearena aplikatuko da.

16.- EBAZPENA ETA HELEGITEAK

Deialdi honek administrazio-izaera dauka, eta, horrenbestez, Udalak du ahalmena hala hori lehenik interpretatzeko nola haren aplikazioan eta ebazpenean sor daitezkeen gorabehera oro ebazteko.

Honako oinarri hauen aurka berraztertzeo errekurtsua aurkeztu daiteke, hilabeteko epean, deialdia onartu duen organo eskudunaren aurrean; bestela, zuzenean kontra egin daiteke bi hilabeteren buruan Administrazioarekiko Auzi Epaitegiaren aurrean.

Aipatu epeak oinarri hauek argitaratu eta hurrengo egunetik hasiko dira zenbatzen bi kasuetan.

3.- LURRALDE BATZORDEKO PROPOSAMENAK:

a.- BEASAINGO BIZILEKU-ERABILERARAKO ERAIKINETAN DAUDEN ETXEBIZITZEN IRISGARritasuna sustatzeko udal ordenantza. HASIERAKO ONESPENA. 2023HIBO0115

Alkate andreak (EAJ-PNV) Lurralde batzordeko ondorengo proposamenaren berri eman du:

“AURREKARIAK

1.- 2023-04-25. Udalaren web orrian argitaratzen da araudia egin aurreko kontsulta, herritarrek iradokizunak aurkeztu ahal izateko, 2023-05-10arte.

2.- Aipatutako epealdi horretan bi iradokizun aurkeztu dira. Zerbitzu teknikoek informatu dituzte (jarraian txostena transkribatzen da). Bi iradokizunak ez onartzea proposatu da.

Beasaingo bizileku-erabilerarako eraikinetan dauden etxebizitzaren irisgarritasuna sustatzeko udal Ordenantzarekiko iradokizunen erantzuna

1. A. Aguirrek egindako iradokizunen idatziaren lehen puntu bakarrak honakoa azaltzen du:

“Irisgarritasunaren inguruko udal ordenantza berriak ea bizilagunek behar dituzten txosten tekniko guztiak (zer egin, nola egin, zein aukerak etabar) udaletxearen kargu geratzen diren jakin nahiko nuke. Aukera hori ez balego ordenantza berria sartuko nahi nuke, hau da, Beasaingo hiritarren bizileku guztien irisgarritasun plan edo egitasmo guztiek behar dituzten txosten tekniko guztiak udaletxeak egitea, bideratzea eta ordaintzea (gure zergen bidez, noski).”

Egindako iradokizunak bizilagunek behar dituzten txosten tekniko guztiak (zer egin, nola egin, zer aukera, etab.) udalaren kontura izatea eskatzen du. Era berean, “Beasaingo hiritarren bizileku guztien irisgarritasun plan edo egitasmo guztiek behar dituzten txosten tekniko guztiak” udalaren kontura izateko eskatuz amaitzen du idatzia.

Egindako iradokizunak beharrezko txosten teknikoak aipatzen baditu ere, eginiko iradokizunetik beharrezko proiektu, eskaera eta azterlanak ere udalak bere gain hartzea eskatzen duela ulertu daiteke, espedienteak izapidatzeko beharrezko txosten teknikoak nahitaez udal-teknikariek egin behar baidituzte.

Jabetza pribatuko eraikuntza bateko irisgarritasuna hobetzeko ustezko obra batzuk egiteko behar diren proiektuak, eskaerak eta azterlanak gauzatzeari dagokionez, obra horiek ekimen eta egikaritze pribatukoak izan behar dute ezinbestean, antzeko izaera duen beste edozein obra bezala.

Azkenik, nabarmendu behar da irisgarritasuna hobetzeko obrek, gaur egun, % 95eko hobaria dutela eraikuntza, obra eta instalazioen gaineko zergen, Beasaingo ordenantza fiskaletan.

Ondorioz, azaldutako arrazoiengatik, eskaera ezetsi egiten da.

2. Alvarezek egindako iradokizun idatziaren lehen puntu bakarrak honakoa azaltzen du:

“ ...

Baina horren aurretik beste arazo bat dago, ordenantza honetan jasotzen ez dena, eta horixe da nik "giza oztopoak" deitzen dudana. Erkidego batzuetan, 85 urteko pertsonak 4. pisuan bizi dira igogailurik gabe, eta duten etxebizitza bakarra uztera kondenatzen dituzte, pisu bat alokatu eta aurrezki guztiak bertan gastatzera behartuz. Bestela, etxean geratu behar dute irten gabe, eta familiaren, lagunaren eta abarren mendeko izatera igaro behar dute, ezin dutelako 84 maila igo eta jaitsi medikuarengana, dentistarengana eta, are gutxiago, eguneroko ogia erostera joateko.

Eta hori guztia nori esker? Beraien bizilagunei esker, hauek, etxebizitzaren jabe izateaz gain, tamalez, merkataritza-lokalen jabe ere badira, eta gai-zerrendako puntu errepikakorra (igogailua) proposatzen den bileretako bozketetan % 51 gainditzea lortzen dute.

...

Horri dagokionez ezer egiten ez den bitartean, etxebizitzetarako irisgarritasun-arazoak dituzten komunitateak egongo dira oraindik, eta guztia bizilagun batzuen berekoitasunari eta krudeltasunari esker.”

Egindako iradokizunaren arabera, Ordenantzak jabekide erkidego batek eraikuntza pribatibo batean irisgarritasuna hobetzeko obrak egitea onartzeko edo ez onartzeko baldintzak arautu ditzan eskatzen du.

Horri dagokionez, azpimarratu behar da egoera horiek Jabetza Horizontalari buruzko uztailaren 21eko 49/1960 Legean arautzen direla eta zuzenbide pribatuaren esparrukoak direla.

Ordenantza batek aipatutako legean jasotako alderdiak aldatu ezin baditu ere, gaur egun honako hau jasotzen da legearen 10. artikularen 1b atalean:

“10. Artikulua

1. Hurrengo jardunak nahitaezkoak izango dira, eta ez dute jabeen batzaren aurretiazko adostasunik behar, eratze-titulua edo estatutuak aldaraztea ekarri ala ez, eta herri-administrazioek ezarritakoak edo jabeek eskatutakoak izango dira:

...

b) Irisgarritasun unibertsalaren arloan arrazoizko egokitzapenak bermatzeko beharrezkoak diren obra eta jarduketak, eta, nolana ere, jabeek eskatuta egin beharrekoak, baldin eta jabe horien etxebizitza edo lokalean bizi, lan egin edo borondatezko zerbitzuak ematen badituzte desgaitasuna duten pertsonak edo hirurogeita hamar urtetik gorakoek, elementu komunaren erabilera egokia ziurtatzeko, bai eta arrapalak, igogailuak edo kanpoaldearekiko komunikazioa edo orientazioa erraztuko duten beste gailu mekaniko eta elektroniko batzuk instalatzeko ere; betiere, urtean jasanarazitako zenbatekoa, dirulaguntza edo laguntza publikoak deskontatu ondoren, gastu arruntaren hamabi hileko arrunt baino handiagoa ez bada. Obra horien nahitaezko izaera ez da ezabatuko gainerako kostua, aipatutako hilekoak alde batera utzita, eskatu dutenek beren gain hartu badute.

Ondorioz eta informazio gisa soilik, gaur egun, erreferentziazko araudiak ez du jabekide erkidegoaren % 51ko gehiengoa eskatzen irisgarritasuna hobetzeko obrak egiteko, desgaitasuna duten pertsonak edo hirurogeita hamar urtetik gorakoak bizi diren eraikinetan.

Ondorioz, azaldutako arrazoiengatik, eskaera ezetsi egiten da.

OINARRI JURIDIKOAK

- 7/1985 Legea, apirilaren 2koa, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituenak: 4.1, 20.1 c), 47.1, 49 eta 52.2 106, 107, 111 eta 113.

- Toki Erakundearen Antolaketa, Jarduera eta Araubide Juridikoaren Erregelamendua, azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuaren bidez onartua: 82.2, 123. eta 126. artikulua.

- 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearenak: 80, 82, 83, 129 eta 133. artikulua.

Lurralde batzordeak, Udalbatza Osoari ondorengoa proposatu dio:

ERABAKI DU

Lehenik. Kontsulta tramitean aurkeztutako bi iradokizunak ez onartzea, txosten teknikoaren arabera.

Bigarren. Beasaingo bizileku-erabilerarako eraikinetan dauden etxebizitzaren irisgarritasuna sustatzeko ordenantza aldaketari hasierako onespina ematea.

Hirugarren. Jendaurrean jartzea 30 laneguneko epean, GAOean iragarkia argitaratua, bertan adieraziz epea horretan ez bada inolako alegazio edo erreklamaziorik aurkeztzen, aipatutako ordenantza onartua geratuko dela.”

Hitz egiteko txanda eman ondoren bildutakoek proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.

Horren ondorioz, bozketa egin da eta aho batez hasierako onespina eman zaio ondorengo ordenantzari:

“ZIOEN AZALPENA

Indarrean dagoen irisgarritasuna sustatzeko legediak aintzat hartzen du, pertsona ezinduen aukera berdintasunaren eskubidea berretsi eta horien desabantaila eta zailtasunak aurreikusi edota konpentsatzeko ekintza positiboko neurrien beharra. Aldi berean, aginte publikoei eta, orokorrean, gizarte osoari eska- tzen die honako erabaki egokiak har ditzaten: Beste hainbat helbururen artean, pertsona horientzat ingurune fisikorako (zentzu zabal batean ulertuta: Hiri-ingurunea, espazio publikoak, eraikinak, e.a.) sarbidea ahalbidetzea eta bermatzea, modu eraginkor eta erreal batean.

Une honetan Beasainen, egun dauden eraikinetan kokaturiko etxebizitza askok, nahiz eraikin horiek beraiek ere, ahalmen urritasuna dutenentzako irisgarritasun arazoak eta zailtasunak dituzte. Irisgarritasuna oztopatu edota eragozten duten hirigintza edota arkitektura trabak.

02/2006 Legea, ekainaren 30ekoa, lurzoruari eta hirigintzari buruzko legearen 177. artikulua, desjabetzeko hirigintza arrazoen artean, ondorengoa zehazten du: Erabilera nagusia bizitegikoa duten eraikinetan, sektoreari dagokion legedian aurreikusitako irisgarritasuna bermatu ahal izateko beharrezkoak diren zerbitzuak eta instalazioak eguneratzeko egin beharra betetzen ez denean. Horrelakoetan, administrazio desjabetzailea udala izango da, eta onuraduna, berriz, jabeen elkarteak edo kasu kasuko obrak egikaritzeko gehiengo nahikoa duena. Onuradunak desjabetzea eskatu beharko du honako hauek egiaztatuz: Batetik, udalaren baimena duen edo izan dezakeen proiektu bat sustatzen duela, eta bestetik, aipaturiko obrak ezin dituela hasi, obrek eragindako ondasun eta eskubide guztiak baliatu ezin dituelako.

Ordenantzaren helburua da, indarrean dagoen legedia eta hirigintza planeamenduaren testuinguruaren baitan, ahalmen urritasuna dutenen eta horiekin pareka daitezkeen sarbidea ahalbidetu eta bermatuko duten esku-hartzeko irizpide nahiz neurriak xedatzea eta arautzea. Etxebizitza eta bizileku erabilerarako eraikinetarako sarbide hori ahalbidetu eta bermatzeko beharrezkotzat hartzen diren obra eta jarduketak burutzearen bidez, igogailuak eta arrapalak jartzea barne.

Ordenantza honela dago banaturik: I. Kapitulua, irizpide orokorre buruzkoa, II. Kapitulua, obra eta jarduketaren baldintza materialei buruzkoa, III. Kapitulua, administrazio agiri eta izapideak, IV. Kapitulua, obrak eta jarduketak burutzeko epeei buruzkoa, eta V. Kapitulua, Lurzati, eraikuntza eta etxebizitzetarako sarreraren egokitzapena bermatzeko, desjabetzearen bidezko jarduketari buruzkoa. Ordenantza hau 2/2006 Legea, ekainaren 30ekoa, lurzoruari eta hirigintzari buruzko legearen xedapenez baliatu da, lege horrek Hirigintza Antolamenduaren Udal Ordenantza Osagarriak tramitatzea tokiko legediaren esku jartzen baitu.

I. KAPITULUA IRIZPIDE OROKORRAK.

1. Artikulua. Ordenantzaren helburua.

Ordenantza honek, erabilera nagusia bizileku kolektiboa duten eraikinen irisgarritasun egoera hobetzea helburu duten eraberritze esku-hartzeen hirigintza eta eraikuntza inguruabarrak arautzea du helburu.

Aldi berean, nahitaezko desjabetzea bideratzeko irizpideak eta metodologia finkatzen dira, indarrean dagoen legedian irisgarritasunari dagokionez aurreikusten denaren ildotik eta hirigintzaren alorreko legedi korrelatiboa aintzat hartuta hartara jo beharra egokitzen denerako. Jabari publikoa okupatzeko aukera ere aintzat hartuko da premia hori egiaztatua dagoen salbuespen kasuetan.

2. Artikulua. Ordenantzaren eta bere aurreikuspenen aplikazio eremua. Eragindako lursail eta eraikuntzak. Ordenantzaren aplikazio baldintzak.

1. Ordenantza hau erabilera nagusia bizileku kolektiboa duten eraikin finkatuei aplikatuko zaie, baldin eta hiri-inguruneen, espazio edo gune publikoen, eraikinen eta informazio eta komunikazio sistemen irisgarritasun baldintzei buruzko arau teknikoak onartzen dituen apirilaren 11ko 68/2000 dekretua indarrean jarri aurreko hirigintza-lizentzia batekin eraikiak badira.

Ordenantza hau ez zaie aplikatuko erabat zaharberritzen edo birgaitzen diren eraikinei, horiek indarrean dagoen Udaleko Hirigintza Plangintzak dituen xedapenen menpe geratzen baitira, Ordenantzaren islatutako kasuen antzeko arazo puntualak dituztenean izan ezik.

2. Hirigintza plangintzaren ondorioz antolamendutik kanpo geratzen diren eraikinak, edo plangintzarekin bat ez datozenak, edo antolakuntza xehakaturik egiteke duten arlo eta sektoreetan lehendik zeudenak bai bildu ahal izango dira ordenantza honetan aurreikusten dena, nahiz eta egiten diren obrek eraikinari edo bertako elementu pribatiboei ekar liezaieketen balio handitzea ez den aintzakotzat hartuko gerora haiek desjabetu beharra egokitzen bada.

3. Udal-plangintzak katalogatutako eraikinek, beren interes historiko, artistiko eta naturalistikoagatik, Aurretiazko Azterlan bat aurkeztu eta izapidetu beharko dute, egindako proposamenaren egokitasuna justifikatuko duena, esku-hartzearen eraginpeko higiezinaren balio historiko-artistikoak hobeto babestean oinarrituta. Azterlan hori Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura Departamentuko zerbitzu teknikoetara ere bidali ahal izango da.

Administrazio-ebazpenak Aurretiazko Azterlana onartu ahal izango du; kasu horretan, egoki iritzitako baldintzak jasoko ditu – baldintza horiek nahitaez bete beharko dira etorkizuneko proiektu teknikoan –, edo esku hartzeko proposamena ezetsi.

4. Helburu horrekin aurreikusitako obra eta jarduketek ondorengoetan izan dezakete eragina:

- A) Etxe horiek dauden eraikinen barruko lokal eta espa- zioetan (osorik nahiz zati batean). Sestrapekoak zein sestra gainekoak eta horien erabilera edozein delarik ere.
- B) Etxe horien osagarri diren eraikinen barruko lokal eta espazioetan (osorik nahiz zati batean). Aipatutako etxebizitzak dauden eraikin horiei loturiko bizileku-erabilerarako lurzati berean daudenak.
- C) Bizileku erabilerarako eraikin horri loturiko bizileku erabilerarako lurzatian integraturiko eraiki gabeko orubeetan.
- D) Bizileku-erabilerarako lurzati horretatik kanpo dauden eta bereak ez diren orubean, irisgarritasun arazoa duten etxebizitzek osatutako bizileku-erabilerarako eraikinaren nahiz lur zatia mugakide direnak.
- E) Obrak edo jarduerak eraikinetako —indarrean dagoen hirigintza-plangintzan zehaztutako irizpideen arabera ezarriak— etxebizitzetan edo haien zatietan eragina badu, baldintza hauek bete beharko dira obra baimentzeko, edozein dela ere etxebizitzak dauden solairua:

- Proiektatutako jarduerak ez kentzea etxebizitza horri edo etxebizitza horiei indarreko araudiak eskatzen dituen bizigarri- tasun baldintzak.
- Proportzionala izatea proposatutako jarduera eta bizitegirako erabilera pribatuko eraikinari egindako kaltea.
- Proposatutako jarduera egin aurretik eskumena duten udal-zerbitzu teknikoek aldeko txostena egitea proposamenari, eta bertan adieraztea ordenantza honi egokitzen zaiola eta proportzionala dela.

5. Lurzati batzuetan dauden hainbat eraikinetako etxebizitzetako sarrera ahalbidetzeko helburuarekin planteatzen daitezen obra eta jarduketetan.

II. KAPITULUA

OBREN ETA JARDUKETEN BALDINTZA MATERIALAK

3. Artikulua. Irizpide orokorra.

Orokorrean eta hurrengo artikuluetan zehaztutakoari kalterik egin gabe, ordenantza honek eragindako eraikin eta etxebizitzaren sarrera egokitzearen nahiz helburu horretarako beharrezkoa diren elementuak (igogailua barne) jartzearen burutu beharreko obrak egokituko zaizkio hirigintza planeamenduan ezarritako hirigintza baldintzei nahiz baldintza teknikoari eta planeamenduaren garapenerako emandako xedapenei (eraikuntzarako ordenantzak eta abar).

4. Artikulua. Indarrean dagoen hirigintza planeamenduko xedapenetako baldintzak birdoitzea.

Indarrean dagoen hirigintza planeamenduan eta horren garapenerako zehaztutako xedapen guzti-guztien arabera, ordenantza honek eragindako eraikinen ezaugarri fisikoek eta materialek, eraikin horietako etxebizitzaren sarrera egokitzearen beharrezkoak diren obrak burutzea eta elementuak instalatzea (igogailua barne) galaraziko balute, ondorengo irizpideen ara- bera jardungo da:

Etxebizitza horien sarrera egokitzearen burutu beharrezko obrak eta instalatu beharreko elementuak, indarrean dauden xedapen haietara egokitu dira; hots, xedatutako helburua eragotzi nahiz zailtzen ez duten gai eta arlo guztietan.

1. Bestalde, xedatutako helburua (eraikin horietako etxebizitzaren sarrera fisikoa ematea) eragotzi nahiz zailtzen duten aurreikuspenek araututako gai eta arloei dagokienean, ondorengo irizpide eta baldintzen arabera jardungo da:

A) Lehentasun-ordena:

Aipatutako helburuarekin burutu beharreko obrak eta instalatu beharreko elementuak, ondorengo eremu nahiz espazioetan burutuko dira. Baita honako lehentasun ordena honetan ere:

- Eskailera zuloa, ahal izanez gero, beste edozein aukera baino bidezkoagoa denean.
- Eraikinaren inguratzailearen barruan, patioa barne, aurreko aukera ezinezkoa denean, edo beste aukeren artean egokiena denean. Geletako argitasuna eta aireztapena bermatu beharko dira.
- Fatxadan, eraikinari loturiko lurzatiaren barruan, atze nahiz alboko fatxadak lehenetsiz, aurreko irtenbideak bidezkoak edo gomendagarriak ez direnean. Bai eta beste aukeraren bat baino egokiagoa denean.
- Jabetza pribatuko lokaletan, baldin eta lokalaren erabilera erabat galtzen ez bada.
- Eraikinaren inguratzailearen barruan eta etxebizitzari eragiten, Ordenantza honetako 2.4.E artikuluan araututako baldintzen eta ustezkoen baitan.
- Fatxadan, eraikinari loturiko lurzati kanpo, aurreko irtenbideak bidezkoak edo gomendagarriak ez direnean. Ustezko honetan, hurrengo leheneste ordena jarraituko da:
 - Esku hartzen den eraikinaren kanpoko lurzati pribatuan.
 - Oinezkoentzako ibilbideetarako ez den jabari publikoko espazioan.
 - Oinezkoentzako ibilbideetarako (nagusia ez direnak) jabari publikoko espazioetan, bidearen funtzionaltasunaren eta hiri-kalitatearen eragin nabarmenik ez badakar.
- Justifika daitezkeen beste aukera batzuk.

B) Debekuak

Lehendik dauden etxebizitzetara sartzeko konponbiderik ez da baimenduko, baldin eta bide eta oinezkoen ibilbide nagusietan eragina badute, haien erabilera intentsitatearen arabera.

2. Berme orokorrak:

Gai horren inguruan proposaturiko irtenbidea edozein delarik, oinarritzko baldintzen mantenua eta zaintza bermatu beharko dira. Alde batetik, eta egungo ezaugarriaren baten aldaketa kaltetu gabe, zuzenean eragindako eremu nahiz espazioek - sotoa, eskailerak, patioa, fatxada - helburu horretarako egokiak izaten eta horiei dagokien zerbitzua ematen

jarrai dezaten. Beste aldetik, eremu horietaz baliatzen diren etxebizitza nahiz lokalek, dagokien erabilera edo jarduera esleitzeko, beharrezkoak diren oinarrizko baldintzak izaten jarrai dezaten.

Zehaztutako baldintzak beteko direla bermatu ahal izateko, kasuan kasu ebaluatuko dira eta aipaturiko espazio edo ere muetan planteaturiko proposamenek sor ditzaketen edonolako eragin edo kaltearen -fisiko, estetiko, akustiko, etab.- ezinbesteko xehetasunak erantsiko zaizkio. Eragin edo kalte horiek zuzendu edo deuseztatzeko beharrezkoak diren tresnak zehaztuko dira, helburu horretarako egokitzen hartzen diren material eta makineria barne.

Irisgarritasun-baldintzak hobetzeko proiektu teknikoek eraikuntzaren kanpoaldearen tratamendu arkitektoniko unitario eta homogenea bermatu beharko dute. Baldintza hori gaur egun tratamendu unitario eta homogenea duten eraikuntza-multzoei aplikagarria izango da..

3. Indarrean dagoen hirigintza araudiko beste xedapen batzuk birdoitzea.
Kasuan kasuko arazo eta egoera bereziak kontuan harturik, ondorengo erabakiko da: Bai birdoitze horiek Ordenantza hau nahiz proposatu eta onartutako irtenbideak era bateratuan hartzearen ondorio direla, bai horretarako beharrezkoa dela Plan Berezia edo Xehetasun Azterlana aurretik idaztea eta onartzea, birdoitze horien eskumen eta izaeraren arabera.
4. Aipaturiko eraikin eta etxebizitzetarako sarrera fisikoa ematea helburu duten eraikin, instalazio eta elementuak (igogailua barne) ez dira konputagarriak izango eragindako lurzati edo eremuaren eraikuntza aprobetxamendua zehaztean.
5. Artikulu honetan azaldutako proposamen eta baldintza teknikoak aplikagarriak izango dira eragindako etxebizitzetan eraberritze –eta birgaitze– obrak eginez gero eta haien indarraldia eta aplikazioa horiek mantentzeko loturik daudela ulertuko da.

Eraikin horien ordezkapen edo eraberritze integralen kasuan, proiektatutako eraikuntza berriak unean-unean indarrean dauden hirigintza aurreikuspenetara egokitu beharko da, kontuan hartu beharreko eraikinaren ezaugarriak irisgarritasuna hobetzeko obren eskuhartzea burutu aurrekoak izango direlarik.

6. Hirigintza Ondarearen Katalogoaren barne dauden ondasunak eta eraikinak direla kontuan harturik, obra horietarako baimena ondorengo baldintzen menpe egongo da: Ondasun eta eraikin horiek baldintza egokietan babesteko eta mantentzeko, kasu bakoitzean beharrezkoak diren neurriak zehaztea eta burutzea. Ondasun eta eraikin horiek degradatu eta ahulduko duten obrak burutzea edo instalazioak ezartzea ez da inolaz ere baimenduko.

III. KAPITULUA

ADMINISTRAZIO AGIRIAK ETA IZAPIDEAK

5. Artikulua. *Obra proiektu teknikoaren edukia.*

Ukituriko etxebizitzetara sarbideak egiteko xedean proiektatutako obra zehaztu eta, hala behar badu, gero baimentzeko prestatu beharreko obra proiektu teknikoak zehaztu eta jasoko ditu,

kasu bakoitzean, horiek berezko dituzten aurreikuspen orokorrez gainera, honako alderdi hauek, behar bezalako zehaztapenarekin:

- A) Ordenantza honetan ongi ezarritako irizpideetara egokitzea, proiektua justifikatzen duten egoeren azalpena barne.
- B) Proposatutako irtenbidearen logika eta zentzua, bai berezkoak, bai planteia litezkeen bestelako irtenbideen aurrean, 2 eta 4 artikuluetan ezarritako irizpideen testuinguruan.
- C) Hirigintza Ondare Katalogoaren barnean dauden ondasunak eta eraikuntzak, edo horien zatiak, direnean, horien tratamendurako eta baldintza egokietan mantentzeko neurriak, elementu horiek orokorrean babesteko, eta bereziki dituzten balioei eusteko. Hala badagokio, aurkeztutako aurretiazko azterlanari emandako administrazio-ebazpenean ezarritako baldintzak betetzen direla justifikatu beharko da.
- D) Ukituriko esparruan planteaturiko soluzioetatik etorritako edozein izaeratako –fisikoa, estetikoa, akustikoa, eta abarren, eragin eta afekzioen ebaluazioa.
- E) Eragin edo afekzio horiek zuzendu edo kentzeko proposamenak, xede horretan egokitzen hartzen diren material eta makinerien erabilerari dagokionean ere.
- F) Ukituriko lurren hirigintza erregimenean planteaturiko soluzioak, hala behar badu, berekin dituen eraginak, horien lursail zatiketarako baldintzak, eraikuntzaren lerroakadurak, lur horien izaera juridikoa eta abar, eta horri dagokionean proiektu honetan zehaztutako irizpideetara egokitzea.
- G) Proposaturiko irtenbideak eragindako ondasun eta eskubide guztien zerrenda, ezaugarrien deskribapena eta titularren identifikazioa. Bai eta, hala balegokio, desjabetu beharreko ondasunen eta eskubideen balorazioa ere.
- H) Obrak burutzearen eta instalazioak ezartzearen kostua, horiek eragindako eraikinaren lursailak edota lokalak eskuratu edota erabiltzearen kostua barne, hala dagokionean.
- I) Proiektuan planteaturiko obren baimen edo laguntza maila ukituriko jabekideen komunitatearen aldetik, helburu horrekin eginiko kudeaketan azalpena barne, eta baita, hala behar badu, kontu horri dagokionean dauden ezadostasunak ere.
- J) Planteaturiko obrak eta jarduerak aurrera eramateko desjabetze bidez esku hartzeko beharra dagoen ala ez, beharreko justifikazioarekin osaturik.
- K) Indarrean dagoen planeamenduan adierazitakoaren arabera, beharrezkoak diren beste edozein egoera eta alderdi.

6. Artikulua. Aurretiazko Azterlana.

Hirigintza Ondarearen Katalogoan sartutako eraikinetarako 2. artikuluko 3. paragrafoan aurreikusitako Aurretiazko Azterlanak, honako dokumentazio hau jaso beharko du:

- Eraikinaren deskripzio-memoria eta eraikuntza ezaugarriak.
- Altxaeren argazki-dokumentazioa, haietan esku hartu nahi bada.

- Proposatutako eskuhartzearen deskribapena eta justifikazio arrazoitua, Ordenantza honen arabera.

7. Artikulua. Proiektu teknikoa izapidetzeko eta onartzeko baldintzak.

1. Proiektu teknikoa tramitatu eta onartu egingo da, indarrean dauden lege xedapenetan ezarritako irizpideei jarraiki, obrak burutzeko eta instalazioetarako udal lizentzia egokia eskatu eta eskuratzearen ondorioetarako.

Ildo horretan, udal zerbitzu teknikoek zehatz-mehatz aztertuko dituzte eragindako etxebizitza eta eraikinetara sartzeko proiektuan proposaturiko irtenbideak.

Azterketa horretan agertuko dira behar bezala arrazoiturik, besteak beste, proposatutako irtenbidearen arrazoizkotasunari buruzko ebaluazioa eta irtenbideak sortitzakeen eragin eta afekzioena, Ordenantza honetan eta indarrean dagoen hirigintza planeamenduan ezarritako baldintza eta irizpideen baitan.

2. Jabari publikoko lurra okupatzea eskatzen duten irisgarritasun-baldintzak hobetzeko egintzak salbuespenezkoak izango dira. Kasu horietan, Udalak, obra-lizentziarekin batera, jabari publikoa modu pribatiboan okupatzeko baimena emango du.

Baimen hori eraikinaren ordezkapenarekin batera iraungiko da edo, aldez aurretik, interes orokorreko arrazoiak direla medio, doakion espedientean azkentze horren beharra egiaztatzen bada.

Edozein modutan, baimena iraungitzearekin batera, herri-jabaria okupatu gabe utzi beharko da jatorrizko egoera lehengoratzeko eta kalte-ordainik jasotzeko eskubiderik inola ere sortu ezinean.

IV. KAPITULUA OBRAK ETA JARDUKETAK BURUTZEKO EPEAK

8. Artikulua. Proiektua eta baimendutako obrak eta jarduketak burutzeko epeak.

1. Izaera orokorrean, proiektu teknikoan planteaturiko obrak eta jarduerak, dagokion udal lizentziaren bidez baimendutakoak, egiten hasteko epea hiru hilabetekoa izango da, lizentzia hori ematen den egunetik aurrera kontatuta.
2. Epe orokor hori egokitu ahal izango da, bai gora bai behera, aipaturiko udal obra lizentzia hori eman behar dela eta, kasu bakoitzaren zirkunstantziak eta berariazko arazoak kontuan harturik.

V. KAPITULUA LURSAIL, ERAIKUNTZA ETA ETXEBIZITZETARAKO SARRERA BERMATZEKO, DESJABETZEREN BIDEZKO JARDUKETA

9. Artikulua. Desjabetzearen bidezko jarduketa arrazoitzea. Irizpide orokorrak.

1. Obrek ukituriko lurren edo/eta eraikuntza zatien behinbetiko edo aldi batera desjabetzearen ondorioetarako, erabilera publiko eta interes orokorreko gisa kontsideratzen da obra horiek ukituriko etxebizitza eta egoitza eraikuntzetara sarbide fisikoa egitea xede duten obra eta jarduerak gauzatzea, gaur egungo baldintzetan sarbide arazoak dituztelako, batik bat ezintasunak edo/eta antzekoak dituzten pertsonentzako.

2. Desjabetze-jarduketa hori, betiere, ukitutako etxebizitzetan eta eraikinetan desgaitasuna duten pertsonak daudela aldez aurretik justifikatzearen mende dagoela ulertuko da.

Ondorio horietarako, desgaitasuna duen pertsona izango da mugikortasun urri iraunkorra duen pertsona, baldin eta Administrazio eskudunak kalifikatutako eta balioetsitako minusbaliotasuna egiaztatzen badu, eta, bertan, dagokion etxebizitza eskuratzeko gaitasunei dagokienez, urritasun-mota eta -maila zehazten badira.

Era berean, desgaitasuna duen pertsonatzat hartuko da hirurogeita hamar urtetik gorako pertsona oro.

3. Aurreikusitako obra eta jarduketan burutzapena 8. artikuluan aipaturiko epeetan hasiko ez balitz, eta horren arrazoia eragindako ondasunak osotasunean zein zati batean ez edukitzea bada, Udalak desjabetze espedientea hastea erabaki lezake, indarrean dagoen lege irizpideen arabera, bai obra sustatzaileak edo sustatzaileek, bai beste pertsona fisiko nahiz juridiko batek edo batzuk hala eskatuz gero.

Nolanahi ere, udal-akordio hori obren sustatzaileak edo sustatzaileek espediente hori hasteko berariaz egindako eskaeran oinarritu beharko da, eta sustatzaileek, aldi berean, eta helburu horrekin, desjabetzearen onuradun izateko beharrezko baldintzak bete beharko dituzte, indarrean dagoen legerian ezarritakoaren arabera.

Zehazki, sustatzaile horiek desjabetzearen onuraduntzat jotzeko, besteak beste, 2006ko ekainaren 30eko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko Legearen 177.j artikuluan ezarritako baldintzak bete beharko dituzte.

Horretarako, desjabetze-proiektuak berariaz identifikatu beharko ditu erkidegoa edo haren zatia edo desjabetzearen onuradun izango diren pertsonak.

4. Desjabetze eskaera 10. artikuluan ezarritako irizpideei egokituko zaie.

5. Oro har, desjabetzeak eragina izan dezake proiektatutako eta baimendutako sarbide-obrek eta -jarduketek eragindako lursail eta/edo eraikin-zati guztietan.

Nolanahi ere, desjabetze horrek, ezarritako epeetan, obren eta jarduketan sustatzaileen eskura ez dauden ondasunei bakarrik eragingo die, egikaritzeko ondorioetarako.

10. Artikulua. Desjabetzeko eskaera.

1. Desjabetze espedientea hasteko eskaera honako hauek egin dezakete: Bai adierazitako helburua duten obra eta jarduketan sustatzaileak edo sustatzaileek, bai beste edozein pertsona fisiko edo juridikok, indarrean dauden lege xedapenetan ezarritako irizpideen arabera, horretarako gaitasuna baldin badu.

2. Aurreko artikuluan adierazitako helburuarekin egindako desjabetze bidezko esku-hartzeko eskaera oro beharrezko zehaztasunez azaldu eta arrazoitu beharko da dagokion, eta hel- buru horretarako egingo den, proiektuan. Bertan, besteak beste, ondorengo aurreikuspenak jasoko dira:

A) Hainbat obra eta jarduketa burutzeko beharra justifikatzea eta, hala badagokio, eragindako instalazio mekaniko edo bestelakoak ezartzea (igogailua barne), kasuan kasu, helburua eraikin eta etxebizitzetarako sarbidea ahalbidetzea bada.

Justifikazio horrek jasoko ditu, besteak beste, ordenantza honetako 2. artikuluan azaldutako baldintzak betetzearekin eta proposatutako sarrera irtenbidearen egokitasunarekin ere erla- zioa dutenak. Bai baldintza teknikoei, bai eragindako eraikuntza eta inguruko zatian dituen afekzioei dagokienean ere.

Edonola ere, justifikazio hori loturik egongo da helburu horrekin egin den proiektu teknikoan aurreikusitako obra eta jarduketak burutzeko dagokion udal lizentzia aurretik ematearekin.

B) Kasu bakoitzean, desjabetzearen bidezko esku-hartzearen oinarri diren arrazoi- en azalpen eta justifikazio zehatzak, batez ere, honako hauek kontuan harturik:

- Eragindako etxebizitzaren batean ahalmen urritasuna duen pertsonaren bat bizitzea.
- Aurreikusitako obra eta jarduketek eragindako ondasunak eskuratu edo lortzeko zailtasuna edo ezintasuna.
- Obra eta jarduera horiek hasteko ezarrita zeuden, eta bete ez diren, epeen iraupena, honako hauen adierazpena barne: Sustatzaileak nahiz sustatzaileek helburu horrekin buruturiko kudeaketa guztien adierazpena, horren inguruan onarturiko edozein akordio barne; obra eta jarduketa horiek, denbora- eta material-baldintza egokietan, burutzeko bestelako tresna nahi- korik edo inolako tresnarik ez izatea, eragindako ondasun eta eskubideen titularrekin eginiko akordioak barne, eta abar.
- Intereskotzat hartzen diren beste edozein.

Horri dagokionean, ulertuko da desjabetze esku hartzea justifikatua egon daitekeela, zehaztutako gainerako baldintzak egiaztatu ondoren, desjabetzetik etorritako afekzio ekonomiko eta materialen proportzionaltasuna justifikaturik, eta horretarako zehaztutako epea igaro ondoren, proiektatu eta baimendutako obra eta jardueren sustatzaileak edo sustatzaileek ukituriko ondasunak eskuratu ezin dituztenean, obra horiek beharreko baldintza eta denboran egiteko, lehen aipaturiko sarbide arazo horri erantzuna eman ahal izateko.

Aldi baterako baldintza hori betetzat hartuko da 8. artikuluan aipaturiko epeak igaro baldin badira.

C) Proposaturiko desjabetzeak ukituriko ondasunen eta eskubideen zerrenda, desjabetze horrek ondasun horiek erabiliko diren jardueraren gainean eta horien titularren gainean izango dituen ondorioak zehaztuta.

D) Obrak sustatzeko baldintzak, jabeen elkartearen nahiz beste edozein pertsona fisiko edo juridikoaren aldetik. Sustapen hori eragin duten egoerak ezagutzea ahalbidetzen duen beharrezko informazioa barne, bereziki eragindako pertsonen artean desadostasunik balego.

Era berean, elkarte horrek obra eta jarduketak burutzearen edo ez burutzearen inguruan hartutako erabakien berri emango da eta akordioaren kopia bat erantsiko da.

E) Proposaturiko desjabetzeak ukituriko ondasun eta eskubide guztien balio ekonomikoa, ukituriko ondasunen, eskubideen eta titularren zerrenda onartu ondoren berregokitu edo/eta osatu ahal izango badira ere.

F) Proiektaturiko obra eta jardueretatik etorritako afekzio ekonomiko, material eta abarren azalpena, haien proportzionaltasunaren edo ez-proportzionaltasunaren estimazio egokia egin ahal izateko.

G) Obren sustatzailearen edo sustatzaileen identifikazio zehatz eta indibidualizatua, eta baita desjabetzearen onuradun posibleena ere.

Testuinguru honetan, komunitate horrek hartutako erabakien berri emango da obra eta jarduerak sustatu edo ez sustatzeari dagokionean, horien kopia barne.

H) Desjabetzearen onuradunak desjabetzeak berak eragindako ondasun eta eskubideen balio ekonomikoa ordaintzeko konpromisoa, balio hori edozein delarik ere.

3. Aurreko atalean aipatutako proiektua egin eta aurkeztu aurretik, obra eta jarduketan sustatzaileak kontsulta bat aurkeztu ahal izango dio Udalari. Kontsulta honek ondorengo datuak jasoko ditu: Alde batetik, kasu bakoitzean desjabetzeen bideragarritasuna ezagutzeko beharrezkoak diren datuak eta, bestetik, kasuan kasu, desjabetzearen bideragarritasuna egokitu beharreko egoerak.

Kontsulta hori egin ahal izango da, aurreikusitako sarrera obra eta jarduketak burutzearen, Udalak dagokion lizentzia eman aurretik nahiz ondoren.

Kontsulta horrek, bereziki, desjabetzeak eragindako ondasun eta eskubideen balio ekonomikoari buruzko estimazio teknikoa jasoko du.

11. Artikulua. Desjabetzeko eskaera baloratzea. Espedientea tramitatzea.

1. Udal zerbitzu egokiek aztertuko dituzte bai desjabetzeko eskaera, bai gai horren inguruan indarrean dauden xeda- penetan eta Ordenantza honetan ezarritako irizpideen arabera eginiko proiektua. Azterketa horretan, besteak beste, ondorengoak aztertuko dira:

A) Aipaturiko irizpideak bete diren ala ez, eskatutako desjabetzearen justifikazioari dagozkionak barne.

B) Kasuan kasuko proposamenei buruzko erabakiak, behar bezala justifikaturik, hurrengo gai hauen inguruan:

- a) Desjabetzearen bidezko esku-hartze eskaera ez onartzea, horretarako beharrezkoak diren baldintzak bete edo justifikatu ez direlako.
- b) Eskaera eta proiektua tramitatzea, horren inguruan indarrean dagoen legedian ezarritako irizpideen arabera egingo dira.

Proiektua egiteari nahiz tramitatzeari dagokionean, aipaturiko legedian xedatutakoari jarraitu beharko zaio. Era berean, beharrezkoa den guztietan, bereizi egingo dira ondorengoak xedatzeari dagozkion faseak edo eginkizunak: Alde batetik, eragindako ondasun, eskubide eta titularren zerrenda eta, bestetik, ondasun eta eskubide horien balio ekonomikoa.

Hartara, eragindako ondasun eta eskubideen zerrendari dagokionean, nahitaezko desjabetzearen inguruan indarrean dagoen legediak ezarritako trataera eman ahal izango zaio 10.2. artikuluan aipaturiko proiektuari eta horrela tramitatu eta halakotzat hartuko da.

2. Aurreko edozein kasutan, Udalak egoki deritzon erabakia/erabakiak hartuko du/ditu.

Desjabetze-eskaera ezetsi ahal izango da, besteak beste, horren ondoriozko afekzio eta inpaktu negatiboekin lotutako arrazoiengatik, baldin eta horiek, arrazoi ekonomiko zein materialengatik, neurriz kanpokotzat jotzen badira.

Desjabetzeko espedientea tramitatzea onartuz gero, Udalak zehaztu egingo du, kasuan kasu, zeini atxikituko zaion jarduketa: Tasazio bateratuaren prozedurari edo banakako tasazioarenari.

12. Artikulua. Desjabetzea atxikitzea, indarrean dagoen legediak horren inguruan ezarritako irizpideetara.

Ordenantza honetan adierazitakoaren osagarri gisa, ordenantza honen helburu den desjabetzea indarrean dagoen legediak horren inguruan ezarritako irizpideei egokituko zaie, oro har. Besteak beste, desjabetzeari hasiera ematea nahiz tramitatzea eta prezio zuzena zehaztea arautzen dutenak barne.

Desjabetzearen onuradunak atzera eginez gero, aipaturiko irizpideak aplikatzearen ondorioei ere egokitu beharko zaizkie.

Halakoetan, desjabetzearen onuradunak ordaindu beharko ditu horrek sortutako kostu guztiak. Betebehar horrek ere aintzat hartzen ditu desjabetze jarduketak eta desjabetzearen onuradunak atzera egiteak desjabetuari sortutako kalteak ordaintzea.

Kostu horien ordainketa bermatzearen, helburu horretarako Udalak egoki deritzon abala edo bermea gordailuan jartzea eskatu ahal izango dio desjabetzearen onuradunari. Oro har, gordailuan jartzea komeni den guztietan, 10.2.E artikuluan aipaturiko ondasunen balio ekonomikoaren %20koa izango da abal hori. Hala ere, behar bezala justifikaturiko hainbat kasu jakinetan, handiagoa edo txikiagoa izan daitekeen zenbateko horri kalterik egin gabe.

AZKEN XEDAPENA

Bakarra.

Ordenantza hau indarrean jarriko da Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta hurrengo egunean.”

b.- FLEMING 34 AREAKO ETA ARIZMENDI I SEKTOREARI BURUZKO PLANGINTZAKO ARAU SUBSIDIARIOEN BERRIKUSTEA ETA EGOKITZEAREN TESTU BATERATUAREN ALDAKETA PUNTUALA. BEHIN BETIKO ONESPENA. 2020NNSS0001

Alkate andreak (EAJ-PNV) Lurralde batzordeko ondorengo proposamenaren berri eman du:

“

AURREKARIAK

1.- 2019-10-31. Udalbatza Osoaren ondorengo erabakia:

“Lehenik. AUSARTONDO, S.L.ren eskaera onartzea eta horren ondorioz, Dr. Fleming 34, area eta Arizmendi, 1 Sektorearekiko Arau Subsidiarioen aldaketa puntuala egitea. Dokumentuaren idazlanaz, Idazlanaz, Imanol Zabala Sarasola abokatua eta ARKITES, S.L. Arquitectura eta Urbanismo estudioa, arduratuko dira.

Bigarren Enkarguak, dokumentua fase guztietan idaztea eta udal teknikoekin elkarlanean, alegazio nahiz erreklamazioei erantzuteko txostenak egitean datza.

Hirugarren. AA SSen aldaketa puntualaren eta izapidetu eta onartzeko beharrezkoak diren beste dokumentuen idazlan gastuak, AUSARTONDO, S.L.ren kontura izango da.”

2.- 2020-09-07. Ingurumen Administrazioaren Zuzendariaren Ebazpena, Planaren ingurumen-txosten estrategikoa formulatzen duena.

3.- 2022-03-03. 34 areako eta Arizmendi I Sektoreari buruzko plangintzako Arau Subsidiarioen aldaketa puntualari hasierako onespena ematea, baldintzekin.

4.- 2023-01-26. Alegazioak onartzea eta 34 areako eta Arizmendi I Sektoreari buruzko plangintzako Arau Subsidiarioen aldaketa puntualari behin behineko onespena ematea.

5.- 2023-03-29. COPUko idazkariaren ziurtagiria jaso izana, honako honen berri emanez:

- Aldeko txostena eman dela.
- 34 arearen fitxan Espazio Libreen Sistema Orokorra eremuaren zonakatze globalean sartzea zuzentzeko beharra.

6.- 2023-04-25. Udalari aholkuak ematen dizkion arkitektoaren aldeko txostena, COPUko txostenean adierazitakora egokitzeko dokumentua idatzi dutenek egindako Testu Bateginari buruzkoa.

7.- 2023-05-2. Idazkariaren txostena, nahitaezkoa, erabakiak gehiengo osoa behar baitu (aldeko 9 boto).

OINARRI JURIDIKOAK

2/2006 Legea, ekainaren 30ekoa, lurzoruari eta hirigintzari buruzkoa:

- 91. art.: Plan Orokorra behin betiko onartzeko Udalaren eskumena, Beasain 7.000 biztanletik gorako udalerria delako.

7/1985 Legea, apirilaren 2koa, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen:

- 22, 2c) artikulua: Osoko Bilkuraren eskumena plangintza orokorra onartzeko.
- 47,2II) artikulua: Udalbatzako kideen legezko kopuruaren gehiengo osoaren aldeko botoarekin (gure kasuan, 9 boto).

Ondorioz, Lurralde Batzordeak honako erabaki-proposamena aurkeztu dio Udalbatzari:

Lehen. 34 areako eta Arizmendi I Sektoreari buruzko plangintzako Arau Subsidiarioen berrikustea eta egokitzearen Testu Bateratuaren aldaketa puntualari behin betiko onespena ematea eta erabakia AUSARTONDO, SL enpresari jakinaraztea, eta haren aurka jar daitezkeen errekursoak adieraztea.

Bigarren. Euskal Autonomia Erkidegoko Lurraldearen Antolamendurako Batzordeari, erabaki honen kopia bat igortzeaz gain, espediente osoa behar bezala diligentziaz bidaltzea.

Hirugarren. Gipuzkoako Foru Aldundia ere dokumentua diligentziaz bidaltzea, foru erregistroan gordetzeko.

Laugarren. Behin betiko onespenaren erabakia probintzian gehien zirkulatzen duen egunkarian argitaratzea eta onartutako xehetasunekin batera Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean ere argitaratzea.

Bosgarren. Behin betiko onarpena eta dokumentua bera Beasaingo Udalaren web orrian ere argitaratzea.

Hitz egiteko txanda eman ondoren bildutakoek iritzi hauek azaldu dituzte:

Nerea Manzisidor Mendizabal andreak (Beasaingo EH Bildu): “Puntu honekiko beti ezezkoa bozkatu dugu, batez ere proiektatzen den etxebizitza ereduarekin ados ez gaudelako. Beraz, oraingoan ere ezezkoa bozkatuko dugu.”

Besterik gabe bozketa egin da eta ondorengo emaitza lortu da:

Aldeko botoak: 12 (EAJ-PNV, Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak)

Aurkako botoak: 5 (Beasaingo EH Bildu)

Abstentzioak: 0

Horren ondorioz, gehiengo osoarekin onartu da proposamena.

c.- BEASAINGO UDALA ETA EUSKO JAURLARITZAKO TURISMO, MERKATARITZA ETA KONTSUMO DEPARTAMENTUAREN ARTEKO HITZARMENA: EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOTIK PASATZEN DEN DONEJAKUE BIDEARI ATXIKITAKO «IGARTZAKO MONUMENTU MULTZOA» KULTURA-INTERESEKO ONDASUNA MANTENTZEKO ETA ERABILERA TURISTIKORAKO BIRGAITZEKO PROIEKTU JASANGARRIA –EUROPAR BATASUNAK NEXT GENERATION EU FUNTSEN BIDEZ FINANTZATUTAKO SUSPERTZE, ERALDATZE ETA ERRESILIENTZIA PLANAREN ESPARRUKOA– GAUZATZEKO. 2023HIB00134

Alkate andreak (EAJ-PNV) proposamenaren berri eman du, hain zuzen ere, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren (Turismo, Merkataritza eta Kontsumo sailaren bitartez) eta Beasaingo Udalaren artean hitzarmena onartzea eta sinatzea ondorengo gauzatzeke: Euskal Autonomia Erkidegotik pasatzen den Donejakue bideari atxikitako «Igartzako monumentu multzoa» kultura-intereseke ondasuna mantentzeko eta erabilera turistikorako birgaitzeko proiektu jasangarria –Europar Batasunak Next Generation EU funtsen bidez finantzatutako suspertze, eraldatze eta erresilientzia planaren esparrukoa.

Xedea: «Igartzako monumentu-multzoa» Mantentzeko eta Birgaitzeko Proiektu Jasangarria gauzatzeke lankidetza. Proiektu hori Europar Batasunak finantzatutako - Next Generation EU Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren barruan dago, eta honako ezaugarri hauek ditu:

- **Kategoria:** Monumentu-multzoa/Donejakue bidea
- **Titulartasuna:** udal-titulartasuna, Beasaingo Udalarena.
- **Babes-maila:** Babes ertaineko gisa kalifikatua (2/2012 DEKRETUA, urtarrilaren 10ekoa, Euskal Autonomia Erkidegotik pasatzen den Donejakue bidearen zatia Monumentu Multzoa kategoriako Kultur Ondasun Sailkatua izendatzekoa).

Zenbatekoa: 700.000,00 €

Jarduketak: Finantzatuko diren jarduketak

1.- Igartzako monumentu-multzoa Kultura-intereseko ondasuna eta/edo haren ingurunea hobetzeko eta birgaitzeko jarduera hauek finantzatu ahalko dira:

- Guneak turismo-erabilerarako birgaitzea.
- Energia-efizientzia hobetzea.
- Klima-aldaketara egokitzeko jarduketak.
- Hondakinak kudeatzeko sistemak modernizatzea, hondakin-sorrera prebenitzeko eta murrizteko ekintzak barne hartuta, baita materialak bereizita biltzeko sistemen ezarpena ere, hondakinak berrerabilpen eta birziklapenerako prestatze aldera.
- Teknologia adimendunak dituzten guneak birgaitzea eta aprobetxatzea (banda zabalaren hobekuntza, *wifi* sareen instalazioa, *online*ko erreserbak, bisita birtualak edo antzekoak).
- Irisgarritasuna hobetzea.
- Argiztapen efizientea hobetzea.
- Energia eta ur kontsumoa murriztea.
- Kultura-intereseko ondasun deklaraturako eraikinak birgaitzea eta zaharberritzea, erabileraturistiko eta kulturalerako.
- Karbono-aztarna murriztea eta konpentsatzea, berotegi-efektuko gasen emisioak murrizteko jarduketa-planen bitartez.
- Energia-efizientzia hobetzea diesel- edo erregai-galdaren ordezkari gas naturaleko galdarak jarritz.
- Ur grisak tratatzeko sistemetan hobekuntzak sartzea.

Iraupena:

- Lagundu daitezkeen jarduketak gauzatzeko epea 2025eko uztailaren 31ra artekoa izango da.
- Hitzarmen honen indarraldia 2025ko urriaren 31n amaituko da.
Aurreikusitako epea amaitu aurretik edozein unetan, hitzarmenaren sinatzaileek aho batez erabaki ahal izango dute hura luzatzea (2026ko ekainaren 30eko gehieneko mugarekin, CIDren 228 helburuak adierazten duen bezala) edo hura azkentzea, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 49 h) artikuluan xedatutakoaren arabera.

Nerea Manzisidor Mendizabal andreak (Beasaingo EH Bildu): “Batzordean aipatu zen interesgarria izango zela hiru urteetarako proiektu integrala lantzea.”

Alkate andreak (EAJ-PNV): “Ados. Ikusita zein jarduketa finantzatu daitezkeen, prest dugun lehenengo jarduketa da Igartza Jauregiko ikus entzunezko baliabideak hobetzea. Bestela ere argiteria, irisgarritasuna, etab. Hobetzea tokatzen da. Orain plangintza hori aurkeztuko dugu eta tokatzen den heinean aurrera eramango dugu. Hitzarmen honen zain egongo gara, Europatik datozen laguntzak direnez, pleguak ere konplikatuak dira berezitasunak dituztelako baina jadanik prest daude ikus entzunezko baliabideak kontratatzeko, baina hitzarmena sinatzea ezinbestekoa da hurrengo pausoak emateko.

Besterik gabe bozketa egin da eta aho batez onartu da aipatutako hitzarmena.

5.- BERRI EMATEA:

Ezagutzera eman da ondorengo ebazpenen zerrenda:

- 2023-3-30etik 2023-05-14rarte emandako Ebazpenak.
- 2023-3-30etik 2023-05-14rarte emandako Ebazpenak kontratu txikiei buruz.

6.- ESKAERA ETA GALDERAK

Eskaera eta galderen atalean honelakoak aurkeztu dira:

Alkate andreak (EAJ-PNV: “Legegintzaldi honetako azken ohiko bilkura dugu. Oker ez banago ekainaren 14an aparteko plenoa egingo dugu gaurko akta onartzeko. Nik eskerrak eman nahi nizkizueke: alde batetik udal taldea osatu dugunei inplikazio eta konpromisoagatik eta egindako lana eta esfortzuagatik eta oposizioari ere bai, Osoko Bilkura honetan errespetuzko tonua mantendu delako eta elkar ulertzeko aukera izan dugulako eta hori mirestekoa da eta bizikidetzari eman diezaiokegun pausoa da. Etxeko langileei ere bai. Gaur hemen ordezkatzan dizkie idazkari eta kontuhartzaileak baina askotan hemengo jarduketa hauek guztiak aurrera eramateko atzetik tekniko askoren lana dago.”

Nerea Manzisidor Mendizabal andreak (Beasaingo EH Bildu): “Gure aldetik esan baloratu egiten dugula talde bezala egiten dugun lana, zeren eta gure konpromisoa izan zen oposizio eraikitzaile bat egitea eta ahalegin horretan ibili gara. Uste dut proposamen ugari jarri ditugula mahai gainean eta denontzat aberasgarriak izan direla. Kritika egin izan behar dugunean ere egin dugu, tokatzen zaigulako. Eskerrak eman baita ere udal langileei. Egia da lan izugarria egiten dutela eta beraiek gabe makinariak ez luke funtzionatuko. Zuei ere bai. Nahiz eta ezberdintasunak izan txukun jokatuko dugu. Bozeramaile bezala azkeneko udalbatza izango denez, nire taldeari eskerrak ematen dizkiot.”

Eva Alvarez Atanes andreak (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak): “Yo si Dios quiere y los beasaindarras también seguiré aquí con Ángel y alguien más si nos acompaña. Nuestro agradecimiento a los trabajadores. Ellos son los más importantes porque son los que llevan la carga de sacar adelante las ideas que se nos ocurren a los políticos y también a todos los que conformamos este Pleno por el respeto mutuo que nos tenemos y las buenas relaciones existentes. Por otra parte, tristeza por no ver a alguno de nuevo.”

Malu Valles Fernandez andreak (EAJ-PNV: “Yo me voy. He estado durante 20 años y siempre he considerado este trabajo como un servicio al pueblo. Eso es lo que me han enseñado en mi casa y agradezco por ello a mi padre y también a los alcaldes que han confiado en mi: Patxi Plazaola, Aitor Aldasoro, Leire Artola. Agradezco la labor de la oposición. Controlar al

equipo de gobierno, es el trabajo más difícil. También agradezco a los trabajadores del Ayuntamiento, especialmente a las chicas de Ongizate. Seguir aquí y trabajar porque es un trabajo súper chulo.”

Alkate andreak (EAJ-PNV: “Bihar Loinatz jaiak hasten dira. Denok ondo pasa!.”

Eta tratatzeko besterik ezean, bilera gaueko zortziak eta hamarretan amaitu da eta nik, idazkari naizen honek akta hau idatzi eta sinatu dut.